

### **3. GAIA.- INDUSTRIALIZAZIOA ETA KAPITALISMOA.**

Gai honetan Karl Polanyik “Aldaketa Handia” deitzen zuen hura aztertuko dugu, hots, zurrenik Iraultza Neolitikotik gaur egunera arte gauzatutako mudantzarik handiena, ekonomi eta gizarte historiari dagokionean: nekazaritzan eta mota ezberdinetako jarduera tradizionaletan oinarritutako ekonomietatik industrian eta merkatuaren funtzionamendu gutxi gorabehera askean oinarritutako batzuetara igaro zen gizateria. Aldaketa hori, maila historikoan, oso bizkor gertatu zen (belaunaldi gutxi batzuetan), eta oraindik amaitu ez den arren, geografia hedapen gero eta zabalagoa lortu du XIX. mendetik aurrera.

Egia da aldaketa horrek, ikusi dugun bezala, erro sakonagoak dauzkala, Europak (eta batez ere Europako mendebaldeak) Erdi Aro eta Aro Berrian zehar izandako bilakaeran. Baina aldaketa “iraultzaileak” XVIII. mendearen bigarren erdialdean eta XIX.ean zehar gertatu ziren, espazio geografiko horretan bertan, eta handik zabaldu ziren mundu guztira. Kapitalismoa, produkzioa eta banaketa antolatzeko era nagusi bezala, beste sistema ekonomiko-sozialak baztertzeko hasi zen; Trantsizio Demografikoaren hasierarekin, populazioa ordura arte ez bezala hasi zen hazten; nekazaritzak bere produktibitatea biderkatu zuen eta, horren ondorioz, bere garrantzia murrizten hasi zen, pisu ekonomikoari zegokionean, bigarren eta hirugarren sektoreen aurrean, industriaren alorrean antolaketa eta teknika aldaketa esanguratsuak nagusitzen ziren bitartean (edo, beste era batean esanda, Industri Iraultza gertatzen zen bitartean).

Aldaketa horien guztien jatorri nagusia (nahiz eta ez bakarra) Britainia Handian kokatu zen, hots, Ingalaterra, Eskozia eta Gales herrialdeetan. Handik, aldaera eta erritmo ezberdinetan, beste zenbait herrialdeetara zabaldu zen XIX. mendean zehar; eskualde horietako gehienak Europakoak edo europar jatorrikoak ziren. Baina ondorioak ez ziren bertan bakarrik nabarmendu, industrializazioa bereganatu ez zuten herrialdeek nozitu baitzituzten, orobat, aldaketaren eraginak: egungo nazioen arteko desberdintasun ekonomiko handien jatorria, neurri nabarmen batean, orduan abiatutako desfasean eta pobretze prozesuan datza. Horiek dira atal honetan aztertuko ditugun gaiak, hain zuzen ere.

#### **3.1. Egitura ekonomiko feudal batetik kapitalista batera.-**

Kapitalismoa deitu ohi den sistema ekonomikoaren edo produkzio moduaren garapenak eta zabalkuntzak markatzen dute gizateriaren azkeneko berrehun edo hirurehun urtetako historia. Aurreko gaietan ikusi dugun bezala, produkzioa eta banaketa antolatzeko forma horrek sustrai sakonak ditu European nagusi zen aurreko sistema ekonomikoan, feudalismoan alegia, baina bere ahalmenak ez ziren guztiz zabaldu aro garaikidea iritsi zen arte: orduan ezarri zen sistema ekonomiko nagusi eta global gisa. Kapitalismoa industrializazioarekin batera inposatu zen sistema ekonomikoa dugu. Produkzio-harreman kapitalistak, aipatu bezala, lehendik existitzen ziren: Erdi Aroko edo Feudalismo Garatuko bankari eta merkatariek kapitala metatzea zuten helbururik behinena, hots, errenta edo mozkin bat eratzeko gai ziren baliabide edo ondasunen *stock*-ak zabaltzen saiatzen ziren etengabe, eta horretarako tresna kapitalistez baliatzen ziren; protoindustrializazio guneetan edo meatzeetan produkzio era hau nahikoa aurreratua zegoela ikus dezakegu, garai haietan. Baina ekonomi sistema hura ez zen gizarte horietan nagusi, hots, marjinala zen, eta garatzeko zailtasun eta oztupo handiak zituen, merkatuaren jarduna alor guztietara zabaltzea ezinezko edo oso zail bihurtzen zutenak (lanaren kasuan, lurraren kasuan...). Soilik Aro Berrian zehar gertatu ziren prozesuen ondorioz (hala landako nola hiri mailako jabe txikien gaineko presioa, merkataritzaren zabalkuntza mundu mailan, espezializazio eta elkarmenpekotasun-prozesuen sakontzea, estatuen zentralizaziorako joerak...) eta Industri Iraultzaren inposaketarekin eta garapenarekin ahal izan zuen hedatu, osotasunean, kapitalismoak, eta, izan ere, hala gertatu zen XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera.

S. Bowles eta R. Edwards-en arabera, kapitalismoa delako ekonomi sisteman, salgaiak produzitzen dira, mozkin bat lortzeko helburuarekin, eta horretarako jabetza pribatuko kapital ondasunak eta soldatapeko lan-eskua erabiltzen dira; ekonomia batek ezaugarri horiek baditu, eta horiek gabe ezin badu funtzionatu, kapitalista dela esan dezakegu. Kapitalistaren (edo enpresarioaren) helburua mozkin bat lortzea da, irabazi edo etekin bat alegia, eta irabazi horren gehiengoa (edo zati handi bat behintzat) kapital gehiago lortzeko erabiliko du, hots, produkzio prozesuan berrinbertituko du. Helburu nagusia, beraz, kapitala metatzea da, eta horrek desberdintzen du beste aurreko sistema ekonomikoetatik, zeinetan inbertitzeko joera ez zen horren nabarmena. Sistemak, bestalde, salgaiak produzitzen dituen (hots, ez hainbeste erabilera balioak, truke-balioak baizik), merkatua inplikatzeko du, merkatu erlatiboki aske bat gainera, zeinetan ekoizleak eta erosleak (hots, eskaintza eta eskaria) elkartzen baitira, eta zeinetan elkartrukutzen diren produktuen eta faktoreen esleipenerako prezioen sistema erabiltzen baita. Horrek, teoriarik behintzat, enpresarien arteko konkurrentzia dakar, lehia etengabea alegia, eta lehia horrek aldaketara eramaten du, halaber: kapitalismoak, aurreko beste produkzio moduek ez bezala, aldaketa sustatzen du, arlo guztietan, mozkinak edo irabaziak lortzeko kapitala inbertitzeko pizgarriak ematen baititu: teknologia arloan, antolakuntza arloan, eskaintako ondasun eta zerbitzuen arloan, gizarte eta politika arloan... Aldaketa sistemaren ezaugarri nagusienetakoa da, beraz; horrek ez du esan nahi aurreko sistema ekonomikoetan aldaketarik ez zegoenik (gehienetan oso mantso gertatzen baziren ere), kapitalismoak berezkoa duela baizik.

Aldaketarako joera etengabe horrek, eta sistemaren izaera berak (ez duela jendearen premiak asetzeko produzitzen, baizik eta irabaziak maximatzeko) gora-behera asko izatera bultzatzen du kapitalismoa. Hots, bertan ere, feudalismoan bezala, ziklo ekonomikoak aurkituko ditugu, baina gora-behera nahikoa homogeen horien ezaugarriak, iraupena eta zergatiak nahikoa ezberdinak izango dira: kapitalismoko krisiak, hein handi batean, superproduktiozkoak dira, ekonomia aurrekapitalistetakoak, gehienetan, azpiproduktiozkoak ziren bitartean.

Emaitza horretara eramaten duen aldaketa-prozesua ez zen bat-batean gertatu, eta, aurreko gaitan ikusi dugun bezala, bere sustraiak oso sakonak izan ziren, kasu askotan Erdi Aroan erroturik, baina larbatuak, ezkutuan, beste produkzio eren eraginpean. XVII. menderako batzuen ustez kapitalismoa herrialde batzuetan nagusi izango bazen ere (Holanda eta Ingalaterran), XVIII.-XIX. mendeetan aldaketa horiek bizkortu ziren, ekonomi eta gizarte sistema berriari (nagusitako emanez, mundu-mailan gainera). Prozesu horrek atal ezberdinak izan zituen, eta horietako bat merkatuaren geroz eta protagonismo handiagoa izan zen, I. Wallersteinek azpimarratzen duen bezala: ekonomi jardueran erabiltzen ziren gero eta elementu gehiago merkatuaren bidez gauzatu edo bideratuko ziren, hala lana, nola kapitala, nola lurra eta natura baliabideak. Horrek badu zer ikusirik ekonomi espezializazioarekin, lanaren banaketa progresiboarekin, hiritartzearekin, atzerri eta kolonia-merkatuen hedapenarekin eta, azken finean, produkzio indarren garapenarekin. Baina hori ez da nahikoa, definizioaren arabera merkatu ekonomia (merkatuak garrantzi handia duen ekonomia bat hain zuzen ere) ez balitzateke nahikoa kapitalismoa "osatzeko"; izan ere, independenteak izango liratekeen ekoizle txikiz osatutako merkatu ekonomia ez-kapitalista bat imajina daiteke.

Kapitalismorako bide horretan, Aro Berrian, bestalde, eta Silvia Federici irakasleak defendatzen duen bezala, emakumearen rol ekonomikoa ere aldatzen joan zen. Kapitalismo aurreko sistema ekonomikoak ere maila handi goan edo txiki goan patriarkalak zirela ahaztu gabe, ematen du kapitalismora zeraman bilakaerak *erreproduktzio ekonomikoaren* alorrera gero eta katigatuago utzi zuela emakumea, hots, etxeko lanetara eta umeen eta zaharren zaintzaren alorrera, lanaren banaketa gero eta xeheago horren baitan alegia. Ibilbide horretan, esaterako, Europa osoan (eta baita Europa Berrietan ere, Ipar Amerikako kolonietan adibidez) XVI. eta XVII. mendeetan gertatu ziren sorginen kontrako

jazarraldiak kokatuko lirateke: Federicirentzat emakumeen lanaren desjabetzearen nahitazeko urrats izango lirateke, prostituzioaren erakundetzea bezala (garai bertsuan gertatuko zena), eta nekazari txikien eta herri lurren desjabetzea bezain inportanteak izango liratekeenak kapitalismoaren erakuntzarako. Ekonomiaren “zientzia” berriak, kapitalismoarekin batera sorturikoak, *produkzio* eta *erreprodukzio* ekonomikoaren artean sortutako leizea bera nahiko esanguratsua da, ikuspuntu horretatik: bere azterketaren helburu bihurtu zuen lehenengoa (merkatu trukeen bitartez gauzatzen dena alegia), bigarrena, familien baitan gertatzen den neurrian (etxean, hain zuzen ere) alde batera utziz guztiz. Izan ere, ekonomia aurrekapitalistetan ez zegoen bi eremuen arteko banaketarik, edo ez zen horren argia: etxea eta ustiatagia gauza bera ziren (landan), edo etxea eta tailerra (hirian), eta, ondorioz, nahiz eta espezializazioak egon, gizonaren eta emakumearen arteko lanaren banaketa ez zen horren nabarmena (emakumeak ere parte hartzen baitzuen “produkzioaren” alorrean). Merkatu ekonomiaren gailentzeak leize handiagoa irekitzen du bi esferen artean. Ekonomia *produktibo* kapitalistak, ordea, ezingo luke berdin funtzionatu “etxe barruan” gauzatzen diren jarduera *erreproduktiboen* zati handiena (emakumeek burututakoa, gehienetan) debalde egingo ez balitz. Eta horrek, bestalde, eta zirkularki, erraztu egiten du emakumearen enplegua, gauzatzen zenean (hots, ezkondu aurretik, batez ere, baina ez bakarrik) okerrago ordainduta egotea, haurrenaren maila berean (lehen industrializazioko fabrika eta lantegietan). Egia da mugimendu feministak, iraultza burgesekin batera sortzen hasi zenak<sup>1</sup>, egoera horren kritika egingo zuela handik aurrera, eta gauzak, alor horretan, aldatzen hasi zirela, batez ere I. eta II. Mundu Gerrez geroztik, baina neurri handi batean koordenada horien barruan mugitzen dira oraindik, are herrialde garatuenetan ere, zeinetan gizonen eta emakumeen arteko soldata-desberdintasunak, murriztu arren, existitzen diren oraindik ere. Kapitalismoak dena mudatu du, baita harremanen alorrean ere: bikoteak eratzeko modua eta maitasunaren kontzepzioa bera zeharo aldatu dira merkatu ekonomiaren nagusitzerako igarobidearekin batera, Eva Illouz soziologoak (besteak beste) azaltzen duen bezala.

Edonola ere, kapitalismora eramane zuten bidea (eta bertara eramaten jarraitzen duena) ekoizle independentearen murrizketa eta suntsipenarena litzateke. Lur jabegoaren eta lantegi txikiaren gaineko kontrolaren galera, soldatapeko langile kopuruaren hazkunde absolutu eta erlatiboa, lantegi “handiaren” nagusigoa oinarritzko produkzio-unitate bezala, nekazari txikiaren garrantziaren galera eta jornalarien presentziaren hazkundera, desjabetze prozesu horren ezinbesteko atalak ditugu, herrialde bakoitzean modu eta erritmo ezberdinetan garatu zirenak. Beste era batean esanda, produkzio bideen jabegoaren kontzentrazioa esku gutxitan ezinbesteko pausoa dugu kapitalismora heltzeko. Leku askotan XVI.-XVII. mendetatik ikusten da nola, bai hirietako artisau-langileak, bai baserrietan lan egiten zuten eskulangileak gero eta autonomia gutxiago zuten merkatari-entresari kapitalisten aurrean; berdin gertatu zen desjabetutako nekazari geroz eta ugariagoen kasuan. Teknologia alorrean gauzaturiko aldaketak oso inportanteak izan ziren, orobat, beharago aztertuko dugun Industri Iraultzarenak batik bat: azken finean, haiek eman zioten kapitalismoari bere behin-betiko nagusigoa (aurreko kapitalismoa, M. Dobbek zioen bezala, ez baitzegoen “osoturik”). Hala ere harremana nahiko dialektikoa da, indar kapitalisten garapenak *ere* esplikatzeko duelako, hein batean behintzat, industrializazio prozesuaren “eztanda”.

---

<sup>1</sup> Gogora ditzagun, besterik ez bada, Mary Wollstonecraft ingelesa eta Olympe de Gouges frantsesa, Frantziako Iraultzaren garaian hain zuzen, bakoitzak bere herrialdean, emakumeen eskubide berdintasunaren alde egin zutenak; lehenengoaren alabak, Mary Shelley Wollstonecraftek, kapitalismo industrialaren eta arrazoizkotasun zientifikoaren zeharkako kritika egin zuen literaturaren ikuspegitik, *Frankenstein* bere nobelaren bitartez (1818): ez alferrik britainiar idazleen talde literario erromantiko nagusiaren partaide zen, zeinaren beste egile bik, Percy B. Shelleyk (bere senarrak) eta Lord Byronnek ludditen aldeko aldarri literario bakarrenetako batzuk idatzi baitzituzten.

Azkenik, ohartarazi behar da sistemaren definizioak ez digula ezer esaten ez ekonomi arloen garapen erlatiboaz (industrializaziorik gabeko nazio edo erregio kapitalista batez hitz egin daiteke), ezta herrialde kapitalistek izango dituzten erregimen politikoei buruz (egile askok kapitalismoaren eta demokraziaren arteko lotura “saihestezinez” hitz egiten duten arren). Aurreko sistema ekonomiko eta sozialen arrastoak eta biziraupenak (feudalismoarenak eta aristokratismoarenak, esaterako, Europari buruz ari bagara), bestalde, nabarmenak izan daitezke herrialde edo eskualde ezberdinetako kapitalismoen hedatze-prozesuetan, ekonomia horren oinarritzko izaera kapitalista zalantzan ipini gabe alegia, baina aldaera bakoitzari ezaugarri bereziak erantsiz aldi berean.

Kapitalismoak aro edo etapa ezberdinak izan ditu: ez du berdin funtzionatzen XIX. mende amaierako kapitalismoak edo XXI. mendearen hasierakoak, nahiz eta aipatu ditugun arau edo ezaugarri orokorrak berdintsuak izan garai baterako zein besterako. Egile batzuek, adibidez, Merkataritza Kapitalismoaren aroz hitz egiten dute [*capitalismo mercantil, merchant capitalism*], Aro Berriko itsasoz haraindiko merkataritza europarrak ardaztutako munduaren ezaugarri kapitalistak azpimarratuz (XVI. eta XVIII. mendeen arteko etapa izango litzateke, beraz); beste egile batzuek, ordea, zantzu horiek onartuta ere, antolaketa ekonomikoaren muinean ezaugarri tradizionalen nagusigoa argia dela defendatzen dute (feudalak, Europaren kasuan), eta gutxiesten dute garaiaren karakterizazioa “kapitalista” gisa. Garai horretan, edonola ere, enpresa eta sistema kapitalistan oso iraunkorrak izango ziren bereizgarriak sortzen edo garatzen hasi ziren, 1. eta 2. gaietan ikusi ahal izan dugun bezala.

XIX. mendez geroztik, ordea, ekonomiaren gorabeherak ezaugarri kapitalista argiak hartu zituzten, eta orduz geroztik (egile guztiak izendapenean bat ez badatoz ere) sistemaren bilakaeran gutxienez hiru une edo aro egon direla adierazten dute, edo hiru *metaketaren gizarite-egitura* [*estructuras sociales de acumulación, social structures of accumulation*], S. Bowles eta R. Edwards ekonomialariek izendatzen dituzten bezala.

Lehenengoa “Konpetentziatzko Kapitalismoa” izango litzateke, edo aro liberala, gutxi gorabehera 1840 eta 1890 artean zabaldu zena. Une horretan zabaldu zen kapitalismoa ekonomi sistemaren gidaritza-ardatz gisa; feudalismoaren eta beste antzinako antolaera ekonomikoen suntsipena gauzatuko zen garai honetan, batez ere industrializazioaren inpaktua, zuzenean edo zeharka, jasan zuten eskualdeetan. Ezaugarri nagusizat izan zuen, besteak beste, merkatu hazkorretan elkarren artean konkurrentzian ari ziren enpresa txikien ugaritasuna, askotan familiartekoak, eta zeinetan jabetza eta zuzendaritza, maiz, batera zihoazen; testuinguru honetan estatuaren parte hartzea ekonomian oso mugatua izan zen (*laissez-faire*aren urrezko garaia izan zen), eta lantegietan deskualifikazio prozesuak hasiak baziren ere (emakume ezkongabeen eta umeen enplegu askotan gainustiatzailea zela medio) langile adituak edo kualifikatuak bere statusa mantentzen saiatzen zen, batzuetan arrakastaz (izan ere, aurreneko sindikatuak langileen “aristokrazia” horren inguruan antolatu ziren leku gehienetan). Britainia Handia bihurtu zen, nazioarteko mailan, sistemaren gidari eta “zaintzailea”, neurri handi batean.

Bigarrena “Kapitalismo Monopolistikoaren” garaia izango litzateke, 1890 eta 1940 artean nagusituko zena. Enpresa txikiek eta ertainek existitzen jarraituko zuten arren (hori esan gabe doa), enpresa handiek menderatuko zuten panorama, nazio-mailako oligopolio eta are monopolio egoeretara eramanez zenbait merkatu; enpresa handi horiek *manager* edo exekutiboek zuzenduko zituzten gero eta gehiago (hots, jabetza eta zuzendaritza bereziko zituzten) eta sozietate anonimoaren egitura hartu zuten, maiz (kartel, *trust, holding* eta bestelako kontzentrazio horizontal zein bertikalerako enpresen arteko akordioak eta fusioak ohikoak izan ziren monopoliozko kapitalismoaren aro horretan, hots, albo batera joan ziren lagatzen aurreko garaian ohikoagoa zen prezioen bitartezko konpetentzia). Enpresak ez ezik, lantegiak, industrian batik bat, handiagoak egin ziren, mekanizatuagoak eta are automatizatuagoak: lanaren antolaketa zientifikoaren printzipioak ezartzen hasi ziren fabrika puntakoenetan, eta, masa-produkzioarekin batera, masa-langilea sortuko zen: deskualifikatua, lan errepikakorretara makurtua; horren ordaina masa-sindikalismoaren

sorrera izan zen. Estatuaren esku-hartzeak ekonomian, hazkorra izan bazen ere, mugatua izaten segitu zuen garai honetan, zeinetan sozialismoaren eta beste ideologia kolektibisten mehatxuaren garrantziak gora egin baitzuen. Truke askearen ideiak atzera egin zuen garai horretan, protekzionismoa hobesten zuten jarreraren aurrean. Nazioarteko mailan lidergo ekonomiko argirik gabeko unea izan zen, bestalde: Alemaniak eta AEBk, industrializatzen ari ziren beste herrialde batzuekin batera, Britainia Handiaren lehentasuna higatu zuten, eta egoera ez-egonkor hori izan zen (beste kausa askoren artean) bi mundu gerren eragileetako bat.

1940 eta 1980ko hamarraldiaren erdialdearen artean “Kapitalismo *Keynestarra*” edo “Kapitalismo *Fordista*” dei genezakeen garai bat luzatu zen, Bowles eta Edwardsek “kapitalismo garaikidea” edo “gaur egungo kapitalismoa” deitzen zutena hain zuten ere. Enpresen batzuek besteko tamainak handitzen jarraitu zuen garai horretan, baina maila nazionalen lehiatu beharrean, gero eta gehiago nazioarteko mailan hedatuko ziren, multinazionalak edo transnazionalak osatuz (multinazional gehienek kapitalaren jatorria herrialde aberats industrializatuetan zegoen, hots, AEB, mendebaldeko Europa edo Japonian). Langileak sindikatuetan antolatzeke joera maximora iritsi zen garai honetan, eta ekonomian interbentzio oso garrantzitsuak egiteke beldurra galdu zuen Estatu bihurtu zen, leku gehienetan, enpresarien eta langileen arteko bitartekari pribilegiatua, gizarte hitzarmen zabalak lortzeko asmoz. Langabezia izugarri murriztu zen “Urrezko Aroa” edo “Hogeita Hamar Lortuak” direlakoan (batez ere 1950 eta 60ko hamarraldietan alegia; hogeita hamar urteekikoak 1945etik 1975era arte doazenei egiten die erreferentzia), eta soldata errealean igoera nabarmena gertatu zen, produktibitatearen eta aldaketa teknologikoaren emendatzearekin batera; masa produkzioaren gailentzeak (lanaren antolaketa zientifikoa bere azkeneko mugetara iritsi zen garai honetan) masa kontsumora eramane zuen (hau guztia, zer esanik ez, herrialde industrializatu garatuetan gertatu zen, baina azpigaratuetan ere hazkundera eta aurrerapena nahiko orokorrak izan ziren, askoz oinarri apalagoetatik abiatzen ziren arren...). Nazioarteko kolaborazioa, herrialde kapitalista garatuen artean (hainbat erakunde sortu ziren horretarako, NDF, Munduko Bankua edo GATT bilerak bezala), oso handia izan zen, AEBen gidaritza ekonomiko (eta politiko) argiaren babespean. Garai horretan, edonola ere, ez da ahaztu behar munduaren zati handi bat, “herrialde sozialista” delakoek osatutakoa, sistema kapitalistaren funtzionamendutik at kokatu zela, eta egoera horrek eragina izan zuela, halaber, herrialde kapitalisten funtzionamenduan ere.

Orduz geroztik, eta 70eko hamarraldiaren amaieratik ezartzen hasi zen “iraultza neoliberalaren” ondorioz, ematen du paradigma aldatu eta kapitalismoa beste etapa edo metaketaren gizarte-egitura batean sartu dela, agian “Kapitalismo *Neoliberal*” dei dezakeguna, baina zeinaz ez baitugu oraindik nahikoa perspektiba historiko haren egituraketa zehatz bat eskaini ahal izateko, eredu fordistaren krisiaz, lanaren malgutzeta eta segmentazioaz (aurreko garaian hasitakoa, baina langileak gero eta gehiago banatzen dituen soldata eta enplegu-segurtasunaren arabera) eta globalizazio prozesuaren sakontzeaz landa.

### **3.2. Erakunde aldaketak.-**

Edozein modutan ere, eta XVIII.-XIX. mendetara itzuliz, industrializazioaren eta kapitalismoaren hedapenarekin beste aldaketa garrantzitsu batzuk gertatu ziren (gertatu behar izan zuten) erakunde mailan, Iraultza Burgesa bezala ezagutu ohi direnak (historialari batzuek *modernizazio* esapide zabal eta lausoagoa nahiago izaten duten arren): kapitalismoa garatzeko ezinbestekoa zen suntsitzea antzinako sistemari eusten zioten legezko eta ohiturazko hainbat oinarri. Iraultza Burgesa izena, alde horretatik, erakunde aldaketa jakin bati ematen zaio, hots, aldaketa politiko eta sozial bati, estamentu-gizartearekin amaitu zuena, sistema parlamentario bat eta ordezkatzeko-gobernu bat ezarri ohi zuena (zeinetatik

burgesiak eta klase ertainek kapitalismoaren eta industrializazioaren garapenerako legezko markoa eraikiko baitzuten) eta, azken batean, burgesia deritzogun klaseari botere politikoa hartzeko edo antzinako klase menderatzailearekin (Antzinako Erregimeneko pribilegiatuekin) konpartitzeko aukera eman ziona. Ez zuen zertan herriaren erreboltez lagunduta gertatu behar, horrelako adibideak badaude ere (azpimarragarriena, Iraultza Frantsesarena); batzuetan zer ikusi handiagoa izan zuen “palazioko matxinada” batekin (Japoniako Meiji Iraultza delakoa bezala), eta batzuetan urte luzeetan zehar gauzatutako prozesua izan zen, Alemaniako edo Espainiako kasuetan gertatu zen bezala.

Garapen ekonomiko garaikidearen ikuspuntutik, Iraultza Burgesen funtzioa kapitalismoak bere garapenean aurkitzen zituen feudalismoaren erakunde-oztopoak desegiten laguntzea izan zen. Materialismo historikoaren arabera, izan ere, azpiegitura ekonomikoaren ezaugarriak bizkorrago aldatzen doaz, eta une batetik aurrera kontraesan hasten dira gainegitura politikoa eta ideologikoarekin, eta kontraesan hori eutsiezina bihurtzean piztuko zen, marxisten ustez, iraultza. Beste era batean esanda, eta gure kasuari dagokionean, produkzio era feudalaren baitan garatzen ari ziren indar produktibo kapitalistak feudalismoaren produkzio harremanekin talka egin eta kontraesan jarri zirenean gauzatuko zen Iraultza Burgesa. Une horretan, ordura arte boteretik kanpo zegoen klase burgesak botere politikoa eskuratuko zuen, klase feudalarik kenduz (edo berarekin konpartituz, eta are fusionatuz), eta jarraian Antzinako Erregimeneko maila guztietan kapitalismoaren garapenari jartzen zitzaizkion trabak ezabatuko zituen: ekonomian, gizartean, zuzenbidean, ideologian etab., produkzio era kapitalistarentzat aurrera egiteko bide guztiak zabalduz.

Horretarako legezko neurri anitz hartu zituzten Iraultzak gidatu zituzten gobernu ezberdinek. Iraultza Burges guztiek, lehenago edo beranduago, ezarri zituzten aldaketen artean luraren jabetza feudalaren transformazioa izan zen garrantzitsuenetakoa: horri esker lurra salgai libre bat izatera igaro zen; prozesu horren barruan kokatu beharko genituzke Elizaren lur jabetza eta herri-lurren desamortizazioa, lur azpiaren esplotaziorako egon zitezkeen traba instituzionalak kentzea, eta baita nobleziaren lurrek salerosteko zituzten oztopoen ezabapena ere, normalean desbinkulazioa deitzen dena alegia: azken helburua, jakina den bezala, luraren jabetza indibiduala eta osoa bihurtzea zen. Jaurerrien ezabatzea atal honi gehitu beharko litzaioke, orobat, jauro jursidikzionalarekin batera, noski.

Iraultza Burgesek, bestalde, kontratazio askatasuna aldarrikatu zuten, hots, lan egiteko askatasuna (beste norbaitentzat, noski), traba feudalarik eta prestazio pertsonal desagerraraziz; esaterako, nekazaria lurrekin lotzen zutenak (morrontza edo joputza, beraz), edo eskulangilea lantegiarekin edo gremioarekin; modu horretan lan denbora ere salgai bihurtu ahal izan zen trabarik gabe. Horrekin lotuta industri askatasuna dekretatu ohi zen, zeinaren arabera gremio eta korporazioen pribilegio eta arau gehienak deuseztatu baitziren, eta mota guztietako errege-pribilegio eta monopolioak ezabatu baitziren: helburua nagusia enpresak fundatzeko eta lantegiak irekitzeko askatasuna eskuratzea zen, noski.

Merkataritza-askatasuna erakundearen aldaketa horretako beste ezinbesteko pausoa izan zen, ondasunak eta zerbitzuak saltzeko eta erosteko trabak deuseztatuz, prezioei ipintzen zitzaizkien tasak debekatuz, barne merkatuaren garapena oztopatzen zituzten barne-aduanak, ate-sariak, zubi-sariak eta barnealdeko muga-sari guztiak alboratuz, eskaintzaren eta eskariaren legeak modu askeago batean funtziona zezan.

Lehenengo iraultza burgesa Ingalaterrakoa izan zen, 1640 eta 1688 artean gauzatu zena, aipatutako aldaketa asko ondoren ezartzen joan ziren arren; Probintzia Batuen independentzia prozesua, XVI. mendearen amaieratik gauzatu zena, hango merkataritza burgesiaren eraginpean egin zena (neurri batean bederen) iraultza burgestzat hartzen dute, orobat, batek baino gehiagok. Estatu Batuetako Independentzia gerratea ere iraultza burgesen artean kokatu ohi da, nahiz eta horien paradigma 1789ko Frantziako Iraultza izaten den; Europako eta Amerikako gainontzeko iraultza burgesak XIX. mendean zehar gauzatu ziren. Edonola ere, aipatu bezala, ezin da Iraultza Burgesa herriaren altxamendu

garaileekin identifikatu, hots, ezin da Frantziako Iraultzaz dugun irudiarekin estuegi lotu. Esan bezala, “iraultza” esapidea ez dago agian ondo hautatua, kasu batzuetan prozesu luzeak izan baitziren, data edo epealdi konkretu batzuekin identifikatzeko zailak; Espainiako Iraultza Burgesari edo Alemaniakoari hori gertatzen zaie, hein batean behintzat. Izan ere, eta asko sinplifikatuz, Iraultza Burgesaren teoriko batzuek bi iraultza burges mota nagusi desberdindu dituzte, *behetik* egindakoak eta *goitik* egindakoak.

*Behetik egindako iraultza* edo *iraultza progresistetan* burgesiak boterea hartuko zuen mugimendu bortitzen edo altxamenduen bidez, askotan herri xehearen laguntzarekin, eta gobernu konkistatu eta gero aipatu erreforma gehienak egin ziren. Kasu horretan leudeke, adibidez, Estatu Batuak (hein batean behintzat), Frantzia, Belgika, eta hein batean baita Italia ere. Dena dela azpimarratu behar da Frantziakoa ez zela izan eredurik jarraituena, XIX. mendean zehar.

Eta, bestetik, *goitik egindako iraultza*, edo batzuek *iraultza atzerakoiak* bezala izendatzen dutenak. Altxamenduak, egon izatekotan, ez ziren oso arrakastatsuek izan. Antzinako erregimeneko klase menderatzaile edo pribilegiadunak ez zuen, iraultza aurrerakoietako kasu askotan gertatu zen bezala, haren botere guztia edo eragina galtzen (eta, are gutxiago, pribilegio batzuk eta batik bat lurraren gaineko jabegoa): burgesia elkarlanean aritu zen aristokraziarekin beharrezko aldaketak pixkanaka egiten joateko; beraz, burgesiaren eta nobleziaren nolabaiteko itun bat dela medio gauzatu ziren (Giuseppe Tomasi di Lampedusa idazle italiarraren esaldi famatua erabiltzearen, iraultza horiek egin zutena izan zen “Dena aldatu, ezer ez aldatzeko”). Goitik egindako iraultzen kasurik nabarmenenak Alemaniakoa, Japoniakoa, Espainiakoa, eta agian Errusiakoa, izan ziren.

Iraultza Burgesak ezin dira besterik gabe demokraziarekin identifikatu. Kasu guztietan erregimen parlamentarioak martxan jarri arren, eta gobernu eta gaineko herritarren kontrola zabaldu arren, Iraultza Burgesek erregimen zentsitarioak ezarri ohi zituzten eta botoa zein hautagai izateko aukera, noski, gizonezko heldu, zuri eta aberatsentzat egon zen erreserbatu. Ez da harritzekoa, hortaz, gobernu eta parlamentu horien jarrera merkatu ekonomiaren zabalkuntzari zegokionez, bertan onartu ziren legeek sistema ekonomiko berriaren ezarpena azkartu baitzuten. Hala ere egia da denborarekin, herritarren presioaren ondorioz, erregimen zentsitario gehienek demokrazia parlamentarioarako pausoak eman zituztela, ez gora-beherarik eta atzerakadarik gabe, hala ere.

### **3.3. Demografia, nekazaritza eta industria-iraultza.-**

Edonola ere, argi dago aldaketa handiaren erantzule nagusienetako bat Industri Iraultza izan zela, eta horrek abian jarri zituen industrializazio prozesuak, hau da, prozesu horiek eskualde batzuetan hasi eta zabaldu izana, eta beste batzuetan, ordea, ez: lehenengo zabaldu ziren horiek bihurtu ziren, denborarekin eta luzaroan, herrialde aberatsak (edo garatuak), eta besteak herrialde pobreak (edo azpigaratuak). Industri Iraultza fenomeno konplexua izan zen eta, bere izendapenak (“iraultza”) aditzera ematen duen bat-batekotasunak besterik badirudi ere, ibilbide nahiko luzekoa, bere sustraiak, ikusi dugun bezala, mendebaldeko Europako Erdi Aroko eta batez ere Aro Berriko aldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozialetan topatu baitaitezke. Industrializazioa garapen ekonomikoaren fase jakin bat da, zeinetan kapitala eta lanaren baliabideak nekazaritza-jardueretatik industria-jardueretara transferitzen baitira, gizarte aldaketa sakonak eraginez. Normalean hainbat fenomeno lotu ohi zaizkio: fabrika-sistemaren ezarpena (*factory system*), hiritartze edo urbanizazio hazkorra, nekazarien emigrazioa eta deslandatartzea, bigarren eta hirugarren sektoreen garrantziaren hazkunde erlatibo eta absolutua, produktibitate osoaren hazkundera, langile klasearen eta burgesia industrialaren sorrera eta ugaltzea, emakume ezkonduen lanaren bideratzea jarduera erreproduktiboetara (kapitalismoaren lehenengo faseetan behintzat), ingurugiroaren gaineko giza-estresaren biderkatzea... Aldaketa hori kuantitatiboa eta

kualitatiboa izan zen aldi berean: kuantitatiboa, gehiago produzitzen zelako, salerosketak asko hazi zirelako, populazioaren ugartze-erritmoa hazi zelako, bidaiak azkarragoak bihurtu zirelako... eta, kualitatiboa, produkzioaren ezaugarri teknikoak eta produkzioak barneratzen zituen gizarte-baldintzak errotik aldatu zirelako. C.-D. Echaudemaisonen *Ekonomia biztegiak* deskribatzen zuen bezala, Industri Iraultza “gizarte aurrekapitalista tradizionaletik produkzio modu kapitalistak menderatutako industri gizarterako urratsaren ezaugarria dugu. Industri Iraultza aurretiko prozesu ekonomiko batzuk kapitalistatzat jo daitezke, baina esfera estu batera mugatzen ziren (negozio handia, itsas merkataritza, banka)”. Industri Iraultzak egin zuen posible, hein batean, kapitalismoaren zabalkuntza sistema ekonomiko nagusi bezala.

Dena dela, Industri Iraultza terminoaren edukia definitzeko orduan, egile ezberdinek gauza ezberdinei eman diete garrantzia: batzuek, K. Polanyi edo A. Toynbeek bezala, gizarte aldaketa sakon gisa ikusten dute hots, pertsonen arteko transakzio ekonomikoak egiten ziren moduan aldaketa sakonak (merkatu ekonomiaren nagusigoa, kompetentziaren garapena...); P. Mantoux, K. Marx edo S. Marglin bezalakoek industri antolakuntzari eman zioten garrantzia, ordea (hots, Industri Iraultza fabrika sistemaren jaiotzarekin erlazionatzen zuten nagusiki<sup>2</sup>); aldaketa makroekonomikoak azpimarratzen dutenen taldea ere badago, bestalde (S. Kuznets, K. Rostow, P. Deane, W.A. Cole...), hots, errenta nazionalaren hazkunderan edo konposaketan eman aldaketak azpimarratu izan dutenak (hala kapitalaren edo inbertsioren osaeran gertatu zirenak, nola lan-merkatuan eta sektoreen arteko banaketan); eta, jakina, badaude ere batez ere aldaketa teknologikoei kasu egin behar zaiela aldarrikatzen dutenak (D.S. Landes, J. Mokyr...), edo energiaren erabilpenean gauzatu ziren aldaketei (ekonomia organiko batetik inorganiko batera emango zen urratsa alegia, cfr. E.A. Wrigley eta enparauak), hau da, Industri Iraultza asmakuntza eta hobekuntza teknologiko batzuen hedapenarekin lotzen dutenak, edo ingurumen naturalaren gaineko ustiaketa (eta suntsipen) boterearen hazkunderarekin.

Industri Iraultza terminoa, gainera, hiru zentzutan hartu ohi da. Lehenengo zentzuaren arabera, Britainiar ekonomiak XVIII. mendearen bigarren erdialdean eta XIX.aren lehenengo erdialdean zehar jasan zituen aldaketa sakonek osatuko lukete Industria Iraultza, zehazki (M.J. Matilla, E.A. Wrigley), hots, lan-prozesuan gizakien indarraren zati handi bat makinek ordezkatu zutela, energia-iturri agorgarriak ordura arte erabiltzen ziren beste energiak (gizakiena, animaliena, eolikoa, hidraulikoa) ordezkatzeko edo osatzen hasi zirela, eta lehengai berrien erabilera (batez ere gai begetal batzuen ordezkapena mea-gai batzuk zirela medio); aldaketa multzo hori, edozein kasutan, bigarren arlo edo sektoreak ekonomian lortu zuen nagusigoan laburbildu daiteke, nahiz eta, jakina, lehenengoan eta hirugarrenean eragin sakonak eduki zituen ere.

Bigarren zentzuak, ordea, ez du lotzen soilik Britainia Handian une jakin batean gertatutakoarekin, J.A. Lacombe dioen bezala: Industri Iraultza, hala erabiltzen dutenentzat, produkzio indarren eta produkzio-harremanen aldaketa handiaren hasiera eta finkapena izango litzateke *edozein herrialdetan*, hots, Frantziako, Ingalaterrako, Espainiako edo Euskal Herriko Industri Iraultzez hitz egitea posible litzateke, bakoitza une historiko ezberdin batean gertatuko litzatekeelarik.

Hirugarren zentzuaren arabera, Industri Iraultza “iraultza tekniko handiaren” sinonimo litzateke. Alde horretatik, hiru Industri Iraultza existitu dira (oraingoz bederen). Alde batetik, Lehenengo Industri Iraultza, XVIII. mendearen amaieratik XIX. mendearen erdialdera luzatuko zena gutxi gora-behera, eta zeinetan nagusi izan baitziren lurrin-makina eta trena bezalako asmakuntzak, harrikatzen erabilera masiboa (hala erregai modura nola siderurgiaren eta kimika industria berriaren oinarri bezala), eta kotoiaren industria mekanizazio prozesuaren ikur nagusi bezala. Bigarren Industri Iraultza, ordea, XIX.

---

<sup>2</sup> Edo, beste era batean esanda, kapitala batik bat zirkulatu zela zen une batetik, pasatu zela kapitala finkoa nagusi zen beste batetara...



mendearen amaieran eta XX.aren hasieran gauzatuko zen, eta haren ikurrak elektrizitatearen produkzioa eta garraioa, eztanda motorra, altzairuaren siderurgia eta petrolioaren eta haren deribatuetan oinarritutako kimika industria izango ziren (lanaren antolaketa zientifikoarekin edo kate-produkzioarekin batera). Azkenik, Hirugarren Industri Iraultza, 1960ko hamarralditik abian legokeena, elektronikan, informatikan, bioteknologian eta antzeko aldaketetan egongo litzateke oinarritua (eta baita lehenagotik garatzen ari zen energia nuklearraren erabilpenean ere).

*Industrializazio* terminoa, ordea, Industri Iraultzaren ezaugarrien zabalkuntza (lehenengo Europako beste herrialdeetara eta Ipar Amerikara, gero mundu osora) eta sakontzea izango litzateke: ez da *une* bat, Industri Iraultza bezala, baizik eta *fase* luze bat garapen ekonomikoaren historian. John Cornwallek dioen bezala, “industrializazioa ekonomia askoren ezaugarri nabarmena zen jadanik XIX. mendearen bigarren erdialdean, eta II. Mundu Gerraren ostean ekonomia kapitalista helduen bereizgarri bihurtu zen, 1960ko hamarraldiaren amaiera arte”. Horrek esan nahi du oraindik egun jarraitzen duen prozesu bat dugula industrializazioarena, horrek prozesua atzerazina denik adierazten ez duen arren: izan ere, erregio mailan batik bat, desindustrializazio prozesuak gerta daitezke, eta gertatu dira (Ezkerraldea, gurean, edo Ingalaterrako eta Valoniako zenbait eskualde horren lekuko dira). Cornwallek gehitzen zuen bezala, industrializazio helduko ekonomia askotan “1970eko hamarraldiaren hasieran industri enplegua jaisten hasi zen enplegu osoarekiko, eta (...) herrialde kapitalistetan (eta baita komunista batzuetan ere) *desindustrializazio* prozesu bat gertatu dela esan daiteke, baita 1970 eta 1980ko hamarraldietako geldialdi eta atzeraldien aurretik ere. Industri enpleguaren aldaketa horiekin batera zerbitzuen arloko enpleguaren hazkundera gertatu da, hala maila erlatiboan nola absolutuan (...) Zerbitzu arloko enplegu erlatibo eta absolutua erregulartasunez ugaltu da industri enpleguak gora eta behera egin duen epealdian zehar. (...) Beraz, ekonomia kapitalista helduen hazkundera prozesua deslandatartze eta industrializazio prozesu bati jarraitzen dion desindustrializazio bat bezala ikus daiteke. Nekazaritzaren eta, ondoren, industriaren lan-baliabideen transferentzia antzeko azpi-indarrek eragin dute. Lanak sektore bakoitzean produzitzen zuenaren eskariaren hazkundera tasek, produktibitatearen hazkundera tasekin lotuta, lan premiak murriztu zituzten, nekazaritzan lehenik, eta industrian ondoren”. Industrializazioak, dena dela, jarraitzen du beste herrialde batzuetan (orain arte azpigaratu bezala ezagutu diren askotan alegia), baina *tertziarizazio* prozesu horretaz gain izan dezake, etorkizunean, bestelako oztoporik, ezin baitugu ahaztu suntsidura ekologikoaren jarraipenak eta natura baliabideen agortzeak, hein batean behintzat, mugak jar diezaiokela, maila globalean, industrializazioari.

Cornwallek dioena gogoan harturik, interesgarria da seinalatzea bigarren sektorean gertatutako transformazioen oinarrian, besteak beste, lehenengo sektorean eta batik bat nekazaritzan gauzatzen ari ziren beste batzuk egon zirela, hots, egile batzuek Nekazaritza Iraultza deitzen dutena (eta ez dena nahastu behar nekazaritzaren “asmakuntza” eta hedapena ekarri zuen Iraultza Neolitiko zaharrarekin). Izan ere, askotan Nekazaritza Iraultza industrializazioaren aurrebaldintzetako bat bezala aurkezten da. Berez, Nekazaritza Iraultza aldaketa teknikoaren multzo bat izan zen, sektore ekonomiko horren produktibitatea hazi zuena eta posible egin zuena, hortaz, lan-eskua eta kapitala beste sektoreetara (batik bat industriara) igarotzea. Baina, aldi berean, Nekazaritza Iraultza ere bada, egile batzuentzat, kapitalismoaren produkzio-harremanen sarrera eta nagusitzea landan, hots, lurra salgaiak produzitzera bideratzen hasia nagusiki, merkatuarekin zuzenean lotzea, eta ustiatzea enpresa kapitalista bat bezala funtzionatzen hasia; hau da, Industri Iraultzak bezala, badu osagarri tekniko bat, baina baita gizarte alorreko beste bat ere. Nekazaritza Iraultza, aurreko gaietan ikusi dugun bezala, Aro Berrian hasi zen mamitzen Mendebaldeko Europako eskualde batzuetan, eta garatzen jarraitu zuen ondoren, Industri Iraultzarekin batera.

Ikuspegi teknikitik, Nekazaritza Iraultza osatuko lukete lurgintza mailan egindako berrikuntzek, hots, lugorriaren murrizketa eta are amaiera, ongarrien erabilera gero eta intentsiboagoa (hasiera batean animalia jatorrikoak; 1830etik aurrera, gero eta gehiago, kimikoak), bazka-landareen sarrera gero eta handiagoa laboreen artean, ganaduaren ukuiluratzeta, lur-txandaketa gero eta konplexuagoen erabilera (lau orritakoa, nagusiki, lugorririk gabe), hazien aukeraketa, makineria eta tresneria berriaren sarrera (burdin gehiago erabiltzen zutenak), lurren lehortzea edo ureztaketa... Horrek guztiak produkzioaren eta produktibitatearen hazkunde handi batera eramanez, ezaguna den bezala.

Ikuspegi sozialetik, ordea, nekazaritza egiturak aldatzen joan ziren, leku batzuetan bizkorrago eta beste batzuetan mantsoago, baina gehienetan antzeko zentzuan: lur sailen kontzentrazioa, jabe eta ustiategi txikien atzerakuntza, lurren hesitzea, herri lurren salmenta eta usurpazioa, jabe eta ustiategi handien nagusitzea, antzinako nekazarien erkidegoaren desegitea, nekazaritza-enpresa forma berrien zabalkuntza, jabetza kolektiboaren atzerakada eta jabetza pribatuaren zehaztapen gero eta estuago bat, indibidualismoaren nagusitzea, merkatuaren protagonismo gero eta handiagoa, morrontzaren eta haren arrastoaren desagertzea (bizirik zirauten eskualdeetan), nekazaritza-proletalgotu baten sorrera (jornalariak)... Horiek ere badira Nekazaritza Iraultzaren alderdiak.

Nekazaritza Iraultzak, alde horretatik, hainbat gauza ekarri zizkion industriagarapenari. Eskaintzaren aldetik, zalantzarik gabe, produktibitate handiago bat eta, hortaz, elikagaien produkzio handiago bat; A. Escudero azaltzen duen bezala, “Frantziak 59 milioi kintal zereal ekoizten zituen, bataz beste, XVIII. mendearen hasieran; 1870 inguruan 160 milioi kintal produzitzen zituen, ia hiru bider gehiago (...). Horrek gosetearen desagertzea progresiboan ekarri zuen, eta baita geroz eta beteagoak zeuden hirien hornikuntza [ziurragoa] ere”. Hala ere, badaude adibideak zeinetan jabetza txiki edo ertainaren biziraupena eta bideragarritasuna posible izan zen, Frantzian bezala, nahiz eta kasu horretan ere ustiategi kanpoko lan-esku soldapetura jotzea gero eta ezinbestekoagoa bihurtzen joan zen...

Bestalde, eskaintzaren aldetik halaber, Nekazaritza Iraultzak beste sektoreetan lan egin ahal izango zuten geroz eta langile multzo handiagoak “produzitu” zituen: nekazaritzan langile gutxiago behar zirenez, soberan zeudenek hirira emigratu ahal izan zuten (edo behartuta egon ziren), bertan ugaltzen ari ziren lantegietako postuak hornitzera. Gainera, Nekazaritza Iraultzak kapital zirkulatu gehiago sortu zuen, lehengai moduan batik bat: kotoia, lihoa edo alkohola bezalako lehengaiak nekazaritza osoaren produktibitatearen hazkunderaren ondorio izan ziren, orobat.

Nekazaritza Iraultzak, bestalde, lur jabe, errentari eta jornalari batzuen errentaren hazkundera ekarri zuen, eta horrek, lehenengo kasuan batik bat, inbertsiorako kapitalak sortu zituen: horietako batzuk nekazaritzan berrinbertitu ziren, baina beste batzuk industri inbertsiorantz bideratu ziren, edo finantza arloa, hazkunde kapitalista industrialak elikatuz; Escudero adierazten duen bezala, historialariek garai batean “lur jabeek edo nekazari aberatsek industriako enpresari aitzindari gisa izan zuten rola gutxietsi zuten arren, egun badakigu lehenengo ehungintza fabrikatzaileen artean nekazaritza-kapitala oinarri zuten zenbait zegoela”.

Errentaren hazkunde horrek, bestalde, izan zituen eraginak eskariaren aldetik ere, landa, orobat, industria-produktuen kontsumitzaile bihurtu zen neurrian; Escudero berak dioen bezala, “lur jabeen mozkin handiagoei eta beronen berrinbertsioei, esaterako, burdinazko tresnen eskaria gehiagotu zuten, tresna horiek ezinbestekoak baitziren nekazaritza hobetzen jarraitzeko (goldeak, aitzurrak, segatzeko makinak, ferrak...)”, eta, geroago, kimika industriaren eskaria ere areagotu zuten, ongarrien, intsektikarien eta abarren bitartez. Baina horrek ez zion bakarrik eragin kapital ondasunen produkzio industrialari, baizik eta baita kontsumo ondasunenari ere, “nekazari txiki eta ertainen eta jornalarien errenta *per capita* handiagoak jantzi gehiago erostea, edo, besterik gabe, eurek ekoizten zutenak janzteari uztea ekarri” baitzuen.

Edonola ere, Ingalaterrako Nekazaritza Iraultzaren ondoren, ez zen nahitaezkoa izan aldaketa haren urrats guztiak ematea industrializazioaren errotzea ziurtatzeko; izan ere, Kontinentean prozesua mantsoago eman zen, gehienetan, eta nekazaritza forma tradizionalak luzaroan mantendu ziren. Bestalde, gehitu beharra dago nekazaritza- eta industria-aldaketan arteko erlazioa, hein batean, dialektikoa izan zela: Industri Iraultzak berak ere, ekarritako aldaketak zirela medio, eragina izan zuen Nekazaritza Iraultzan, hala, garraio bizkorragoen garapenak (trenarena bezala) eskualde-espezializaziorako aukerak handitu zituen eta, ondorioz, baita produktibitatea handitzeko ere; bestetik, iradoki dugun bezala, industri aldaketek tresneria hobetzeko aukera eskaini zuten (batez ere burdina barneratzen zuten tresnena, eta zer esanik ez lurrunaren eta eztanda motorra garatu zituenean, edo ongarri kimikoen industria...); azkenik, ezin dugu ahaztu industrializazioak merkatu berriak eratu zituela, batzuetan nahiko urrun, eta horrek nekazaritzaren eraldaketan sakontzen jarraitzeko pizgarria eman zuela (Estatu Batuak, Kanada edo Australiako “Europa Berrien” nekazaritza-gaien esportaziorako joerak frogatzen duen bezala, XIX. mendean zehar). Nekazaritza Iraultzak, beraz, jarraipena izan zuen XIX. mendearen bigarren erdialdean, ongarri kimikoen, mekanizazioaren eta bestelako gai artifizialen erabileraren bitartez, eta are XX. mendean ere, 1950 eta 1960ko hamarraldietako *Iraultza Berdea* delakoaren bitartez, eta are gaur egun ere, transgenikoena bezalako eztabaidek frogatzen duten bezala.

Antonio Parejok esaten duen bezala, zuzena da “nekazaritzako eraldaketak kontuan hartzea geroa etorriko zen industria-garapen paraleloaren oinarritzat: faktoreen produktibitate-mailak jasotzean, mendebaldeko ekonomietako nekazaritza, gero eta populazio ugariagoa (eta gero eta hiritarragoa) elikatzeke eta agertzen ari ziren beste gizatalde batzuei lana eta kapitala emateko gai izateaz gainera, gai zen eskari-faktore garrantzitsu bihurtzeko: bitarteko ondasunena, teknologiaren eta ongarrien erabilera zabalduz joan zenean, eta kontsumo-ondasunena, landako populazioaren errenta-mailak gora egin ahala. Aldaketa horien kokalekuari, erritmoei eta intentsitateari dagokienez, berriz, ikerketa guztiak datoz bat: nekazaritza iraultzaren eta industria-iraultzaren arteko lotura ugariak (bi terminook erabil daitezke antzera, hots, produkzio-egituren modernizazioa adierazteko) eta bi fenomenoon bat egitea, batez ere Europako ipar-mendebaldean eta Estatu Batuetan, 1815 eta 1870 artean.

Europaren kasuan, baliabide fisikoetatik zetozkion abantailak (nekazaritza potentzialki produktiboagoa, klima-baldintza hobeengatik) eta merkatura begira goiz jarri izanaren abantailak indartu zituzten lur faktorea liberalizatzeak eta jabetza-eskubideak ezartzeak, biei ekin baitzieten XVIII. mendearen hondarretik iraultza burgesetatik sortutako estatuek. Geroago, aurrerapen horiek areagotu egin ziren lehen industrializatze-bultzaden ondorioz: langileak kanporatzeak (produktibitate handiagoko sektoreetara) sustatu egin zuen teknologiaren harrera; barne-merkatuak trenari esker gero eta gehiago integratzeak bide eman zien ordura arte ezinezko ziren nekazaritza-espezializazioei; bizi-mailak gora egin zuen, hiritartze-prozesuak aurrera, labore berriak sartu ziren eta abeltzaintza hedatu egin zen.

Produkzioa gehitzeak, produktibitatea hobetzeak eta merkatura begira jartzeak markatzen dute nekazaritza tradizionaletik nekazaritza kapitalistarako lehen iragaite hori. Berriz esatea komeni da: Europa osoko fenomeno bat izan zen, baina hobekuntza horiek guztiak handiagoak izan ziren herrialde industrializatuetan. Produkzioa gehitzea lur gehiago lantzeari esker lortu zen, baina baita lugorri utzitako aldia gutxitzeari eta ordura arte antzuak edo bazterrekoak ziren lurrak hartzeari ere (Herbehereetan itsasoari kendutakoak barne). XIX. mendeko europar nekazaritzak zerealista izaten jarraitu zuen batik bat, baina labore berriak sartzeak edo gehiago hedatzeak (patata da ezagunena, baina aipatu behar dira azukre-erremolatxa eta zenbait barazki eta fruta ere) lagundu zuten europarren dieta hobetzen eta anizten.

Faktoreen produktibitatea emendatu egin zen labore-teknika berriak sartzeari esker (txandakatze intentsiboagoak barne), bai eta makineria (zenbait lanetan, uztan bereziki) eta ongari ez-organikoak erabiltzeari eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren artean lotura estutzeari esker ere. Azken batean, berrikuntza horiek guztiek enpresa mota berri bat ekarri zuten, merkatuko *inputez* baliatzen zena eta, jakina, produkzioa hara bideratzen zuena.

Dena den, nekazaritzako ustiategi handiokin batera baziren familia-ustiategiak ere, intentsiboak lana erabiltzerakoan, eta, oro har, nekazaritza-produktu jakin batean espezializatuak.

Baina nekazaritza-garapenaren ereduak bat baino gehiago izan ziren XIX. mendean. Deskribatu berri dudana kontinenteko ipar-mendebaldeari dagokio; periferian, ordea, ingurune naturalak zaildu egiten zuen berrikuntza teknikoak sartzea, horrek gutxitu egin zituen produktibitatean izandako irabaziak, eta, ondorioz, sektoreak ezin izan zituen sorrarazi antzeko kanpokotasunak. Beraz, produkzioa lur gehiago lantzeagatik gehitu zen, faktoreak modu intentsiboagoan erabiltzeagatik baino gehiago; lur-jabego handiak ez ziren enpresa kapitalistak nahitaez, ezta txikiak ustiategi espezializatuak ere, eta lan faktorearen mugikortasuna, industrializazioak aurrera egiten ez zuenez, oso txikia izan zen.

Estatu Batuen kasua Europakoaren oso bestelakoa izan zen. Lehenik eta behin, lurrak ordura arte ia urratu gabea izanik, biak egin ahal izan zirelako: lur gehiago landu eta produktibitatea handitu. Lan faktorearen eskasiak zerealen nekazaritza (estentsiboa) bizkor mekanizatzea ekarri zuen mendebaldean; produkzioa trenaren bidez merkaturatzen zen, ekialdeko hiri-merkatuetan, eta geroago baita Europan ere. Hegoaldeari dagokionez, non langileak esklaboak baitziren gehienak Sezesio Gerrara arte, espezializazioa kotoian oinarritu zen, Europako fabriketako lehengai oinarritzakoa baitzen, bai eta ekialdeko kostan (Ingalaterra Berrian) hasi-masietan zen kotoi-industrian ere”<sup>3</sup>.

Aldaketa handiaren beste elementu inportante bat Trantsizio Demografikoa izan zen. Hala deitzen zaio antzinako eredu demografiko batetik (heriotza tasa altuak, jaiotza tasa altuak, populazioaren hazkunde natural mantsoa, hilkortasun katastrofikoaren zartakoak noiz edo noiz...) egungo herrialde garatuetan nagusi den eredu demografikorako igarobideari (heriotza tasa txikiak, jaiotza tasa txikiak, populazioaren hazkunde natural mantsoa edo are negatiboa, hilkortasun katastrofikoaren agerpen urriak...). Esate baterako, M. Livi-Bacci demografo eta historialariaren datuen arabera, Italiako jaiotza tasa 1881 inguruan, hots, eredu zaharra indarrean zegoenean, %36,5koa zen, eta %11,4ra jaitsi zen 1981rako (eredu demografiko berria); heriotza tasarekin antzera gertatu zen, %28,7tik %9,6ra pasatzen da, hots, ia heren batera murriztu zen kasu bietan, emaitza antzekoa izanik, hazkunde natural leun bat (txikiagoa orain), baina jaiotzerako bizitza itxaropen handiago batekin noski (Italian garai horretan pasatu zen 35 urtekoa izatetik –jaiotzean–, 74koa izatera) eta populazioaren zahartze-maila handiagoarekin (ordea, antzinako eredu demografikoan eta trantsizio garaikoan populazio piramidea “gazteagoa” izan ohi zen). Oro har esan dezakegu heriotza katastrofikoak eta ezkontzak baldintzatutako hazkunde eredu batetik, heriotza atzeratuago batek eta jaiokuntzaren kontrol zuzenak baldintzatutako beste batera igarotzea dela trantsizio demografikoa.

Trantsizioa martxan dagoen bitartean, ordea, populazioaren hazkunde oso altua izaten den une luzeago edo laburrago bat gertatzen da. Hori hala da lehenik eta behin (eta salbuespenak salbuespen) heriotza tasak jaisten direlako, eta jaiotza tasak, ordea, bakarrik geroago hasten direlako apaltzen, edo are hazten direlako, antzinako eredu demografikoaren galga “prebentiboak” laxatzearen ondorioz (Industri Iraultzaren eraginez ezkontza adina eta ezkongabetasuna murriztu egin ahal izan zirelako, neurri eta kasu

---

<sup>3</sup> Antonio Parejo, “Industrializazioaren hedapena eta ekonomia kapitalisten agerpena (1815-1870)”, *Munduaren historia ekonomikoa X.-XX. mendeak*, Bilbo 2013.

batzuetan). Heriotza tasen jaitsierak elikaduraren hobekuntzaren eta erregularizazioaren, higie-neurri geroz eta eraginkorragoen (batez ere hirietan, etxebizitza osasuntsuagoen, ur garbiagoaren hornikuntzaren, estolderia sistema eraginkorragoen eta xaboi merkagoaren erabileraren zabalkuntzagatik) eta medikuntza aurrerapenen ondorio dira nagusiki; lehenengo arrazoiak (elikadurak, Nekazaritza Iraultzarekin lotuta, eta neurri higienikoen) XIX. mendeko heriotza tasaren jaitsierak azaltzen ditu (horiek ere lagundu baitzuten gaixotasun batzuen eragin hilgarria murrizten), batik bat, eta medikuntza arlokoek garrantzia handiagoa izan zuten XX. mendean, oro har, hala mundu garatuan nola azpigaratuan. Jaiotza tasen jaitsieran, bestalde, faktore askok eragiten dute: heriotza tasaren eta batez ere haur hilkortasunaren jaitsierak (jada ez da beharrezkoa hainbeste ume “produzitzea” hil daitezkeenak ordezkatzeko), bizitza-mailen hazkundeak, hezkuntza mailak, emakumearen gizarte-egoeraren aldaketak eta enplegu-tasaren handitzeak (borroka feministaren eta XX. mendeko aldaketa sozial eta belikoen ondorio), eta neurri antisorgailu eraginkorrak erabiltzeko aukerak (nagusiki preserbatiboa –1850eko hamarralditik, kautxuaren bulkanizazio prozesuaren asmakuntzaren ondorioetako bat legez– eta pilula antisorgailuak –1950eko hamarraldiaren amaieratik–). Izan ere, trantsizio demografikoa, ikuspegi horretatik, aldaketa prozesu kulturaltzat har daiteke, hein batean behintzat.

Herrialde garatu gehienek XVIII. mendearen amaieran edo XIX. mendean zehar hasi zituzten beren trantsizio demografikoak, eta, oro har, II. Mundu Gerraren ostean "burutu" zituzten, 1950-70 hamarkaden inguruan; herrialde horietako populazioaren hazkundearen "eztanda", beraz, XIX. mendeko edota XX. mende hasierako une ezberdinetan gertatu zen, eta une horretan ekin zioten europarrek hain zuzen ere Europaz kanpoko zenbait kolonia edo kolonia ohi populatzeari, emigrazio masiboaren bitartez (fenomeno horri “eztanda zuria” deitu diote historialari batzuek: 1846-1932 bitartean 50 milioi pertsona inguru irten ziren Europatik; gehienak Estatu Batuetara, Argentina eta Uruguayra, Kanadara, Brasilera, Australia eta Zeelanda Berrira bideratu ziren: izugarria izan zen mugimendu horren garrantzia europar ekonomiaren garapenarentzat, hazkunde ekonomikoa *per capita* zabalagoa baimendu zuen heinean).

Herrialde azpigaratu gehienetan, ordea, prozesua ez da burutu (kasu askotan 1950 ondoren hasi baitzen gauzatzen), hots, heriotza tasen jaitsiera nabarmen bat jasan duten arren, ez da hainbestekoa izan haien jaiotza tasena, egungo “eztanda demografikoen” kausa izango litzatekeena.

### 3.4. Industrializazioaren gizarte-ondorioak.-

Kapitalismoaren eta industrializazioaren garapenera eramán zuten aldaketa-prozesu horietan guztian zehar, jakina den bezala, bi klase edo gizarte-talde nagusi eratzen joan ziren: langile edo proletarioena (lantegi industrialetan eta hauen inguruan lan egiten arituko direnak) eta enpresari, nagusi edo kapitalistena (fabriken eta produkzio ondasunen jabeak). Prozesu horrek, lehenik eta behin, eta hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala, Britainia Handian gauzatu zenez, horretan oinarrituko dugu, nagusiki, industrializazioaren gizarte-ondorioen inguruko eztabaidaren aurkezpen laburra.

Gizarte-klaseen eraketa izango litzateke, alde horretatik, ondorio sozialik behinena: estamentu-gizarte batetik klase-gizarte batera igarotzen gara industrializazioarekin batera. Alde batera utzita eztabaida historiografiko eta soziologiko klasikoa, hots, ea klaseak *berex existitzen* diren (gizarteko talde ezberdinek soberakinaren eta lanaren kontrolari dagokionean betetzen duten rolaen ondorioz) edo klase-kontzientzia garatzen duten heinean *sortzen* diren (hori izango litzateke, oso zabar adierazita, E.P. Thompson bezalako historialarien ikuspegia), esan beharra dago langile klasearen eraketa nahikoa heterogeneoa izan zela: antzinako artisauak (batzuk industrializazio prozesuak pobretutakoak), hirietako behartsuak, lurrak galdu eta nekazaritzan lekurik aurkitzen ez zuten jendea, etab. osatzen joan ziren, hein handi batean. Printzipioz, ez dirudi Industri Iraultzak produzitutako

aberastasun handiagoek etekin handia ekarri zietenik, haien arteko gutxiengo bati ezik (langile espezializatuenak). Izan ere, langile gehien bizi-mailak ez ziren askorik hobetuko (haien artean diferentzia handiak bazeuden ere) eta bizi-kalitateak, seguruenik, okerrera egin zuen: soldata baxuak, langile-auzoen pilaketa, lan-ordutegi luzeegiak, lan-baldintza txarrak, umeen eta emakume ezkongabeen lan merkaren gehiegizko esplotazioa... Friedrich Engelsek bizitasun handiz erretratatu zuen egoera hori bere *Langile-klasearen kondizioa Ingalaterran 1844an* liburu ezagunean. Horrek guztiak, edonola ere, ez gaitu eraman behar idealizatza lehengoko nekazaritza-guneetako landetxe eta baserrietan edo artisautza domestikoan ari zirenen lan-baldintzak: jendeak hiri industrial berrietara emigratu bazuen zerbait hobea espero zuelako izan zen, askotan.

Eztabaida historiografiko ezagunena, alor horretan, aurrez aurre historialari *optimistak* eta *pesimistak* jarri zituen izan zen. Lehenengoek uste dute, gorabehera eta krisialdi batzuk alde batera utzita (Napoleonen garaiko blokeo ekonomikoaren garaia, adibidez), langileriaren bizi-maila orokorrak etengabe igo zirela industrializazioaren lehenengo uneetatik. Horretarako ebidentzia kuantitatiboan oinarritzen dira batik bat: populazioaren hazkundera, errenta *per capitaren* igoera, kontsumo-produktuen erosketaren igoera (tea edo azukrearena, adibidez), eta soldata errealeko igoera bezalako datuak erabiltzen dituzte halakorik defendatzeko.

Ezkorrek edo pesimistek, ordea, datu kualitatibo gehiago erabiltzen dituzte industrializazioaren lehenengo kolpea nahikoa negatiboa izan zela baieztatzeko, baikorren ebidentzia kuantitatiboak kritikatu (batz bestekoak direla argudiatuz, adibidez), berriak eskainiz (esaterako, soldaduska egitera joaten ziren mutilen altuera-datuak, aditza ematen dutenak auzo industrialetik zetozen gazteen altuera murriztu zela XIX. mendearen lehenengo erdialdean, elikadura eskasaren seinale izango litzatekeena), eta datu kualitatibo ugari plazaratuz: bizi-kalitateari buruzkoak, fabrika eta auzoen giro txarra, lan-baldintza eskasak, ordutegi luzeak, etab. Hilkortasun tasen jaitsiera, Trantsizio Demografikoari zegokion bezala, ez zen parekoa izan auzo proletarioetan eta auzo burgesetan (hiritartze prozesu azeleratuak leize geografiko berriak ireki baitzituen hirietako zona ezberdinen artean, industriaurreko hirietakoak ez bezalakoak), eta kasu batzuetan alderantzikatu eta guzti egin zen, auzo proletarioetan igotzera jo baitzuen behin baino gehiagotan, prozesuaren lehenengo fasetan batik bat; hilkortasun diferentzial horren existentziak (dela lan-baldintzek eragindakoa, dela giro-faktoreek eragindakoa –biziegokitasun baldintzak, elikagai hornidura, zerbitzu medikuen eskasia...–) pesimisten aldeko argudio nagusietako bat da. Eztabaida, azken finean, honetan datza: ea Industri Iraultzak, berez, bizitza-maila eta bizitza kalitatearen igoera orokorra ekarri zuen, ala ez; ez da adostasunik lortu.

Nahikoa adostasun dago, ordea, XIX. mendearen erdialdetik britainiar langileen egoerak hobera egin zuela pixkanaka eta desberdintasun handiekin, arrazoi anitzengatik (hots, soldata errealeko hazkunde nahiko jarraitu bati eman zitzaiola hasiera; horrek ez du esan nahi, edonola ere, alde ekonomiko eta sozialek, aberatsen eta pobreen artekoek, handitzen jarraitu ez zutenik: Thomas Pikettyk azaltzen duen bezala, alde horien murriztea ez zen gauzatzen hasi XIX. mendearen amaiera aldera arte edo are I. Mundu Gerra osterara arte, eta kapitalismoaren “Urrezko Aroan” orokortu ziren, herrialde garatuetan behintzat; 1970eko hamarraldiko krisiaren ostetik, ordea, zabaltzen hasiko ziren osterara ere). Alde batetik, ekonomiaren epe luzerako martxa hazkorra nazio errentaren hazkundera ekarri zuen emaitza gisa, eta, ondorioz, banatzeko aberastasun handiagoak zeudela esan daiteke; horrek bakarrik, hala ere, ez du azaltzen langileen bizi-mailen hobekuntzarako joera. Kontuan hartu behar da, horrekin batera, kolonialismoak jokatu zuen papera, inportantea, Rosa Luxemburgek esaten zuen bezala, metropoliko langileen erreboltarako joera apaltzeko orduan, eta baita lan-eskuaren zati baten emigrazioak ere, Amerikara batik bat: britainiar sindikatuek emigrazioaren defendatzaileak izan ziren beti, gelditzen ziren langileen eskaintza murrizteko eta beraz soldata igotzeko bide bat izan zitekeelako. Baina ziurrenik, rolik inportanteena langileen antolakuntzan gertatutako aldaketak izan ziren, sindikatuen

(*trade unions*) eraketarekin edo Kartismoa (langileentzako beste hobekuntza batzuez gain, sufragio unibertsal maskulinoaren alde egin zuena) bezalako mugimenduen loraldiarekin; badirudi, beraz, borroka sindikalek eta eskubideen aldarrikapenak, kasu askotan modu mingarrian izan bazen ere, fruituak eman zituztela. Ordea, aurretik garatu ziren mugimenduek, *luddismoa* bezala, arrakasta txikiagoa izan zuten ikuspuntu horretatik (XVIII. mendearen bukaeraren eta XIX. mende hasieraren arteko makinaren suntsipenaren aldeko mugimendua izan zen luddismoa, gehienbat lanik gabe geratutako artisauek osatuta; haien leader mitikoaren eta ziur aski apokrifoaren graziari, “Ludd jenerala” delakoari, zor diote izendapena, eta zona batzuetan dezente zabaldu zen arren, ezin izan zion industrializazioak aurrera zeraman mekanizazioari eta haren gizarte ondorioei aurre egin, hots, langabezia teknikoari eta deskualifikazioari).

Nagusien talde estuagoan, industri burgesian, ordea, beste jatorriko jendea aurkitu da, eta ekonomi historialarien arreta erakarri dute, haiek izan baitziren, beren enpresen fundazioarekin, Industri Iraultza bultzatu zutenak. Zaila da, ordea, talde horren karakterizazio on bat egitea, haren jatorria ere nahiko heterogeneoa den heinean. Garai batean historialari askok uste zuten industria-enpresarien jatorria Antzinako Erregimeneko merkatarien eta bankarien taldean egongo zela, batik bat; hala atzerri-merkataritzan ibilitako merkatari handiengan, nola protoindustrializazio guneetako bitartekari edo merkatari-enpresariengan (*verleger* delakoengan, etxeko artisauei lehengaia kredituan saldu eta produktu amaitua erosten zietenak); historialari marxista askoren ustea zen hori. Egun, ordea, eta 1970eko hamarkadatik burutu diren enpresen eta enpresarien historiei esker, aurreneko industrial horien jatorria anitzagoa eta askotan apalagoa izan zela ikusi da, bertan merkatari handi batzuk aurkitzea, jakina, posible zen arren. Hala, frogatu da nekazari txiki edo ertain aberatsenen (*yeomen*) familietatik enpresari dezente sortu zirela; artisauek ere industrian inbertitu zituzten haiek metatutako kapital txikiak, nagusi bihurtuz. Eta bigarren fase batean, industrializazioa arlo batzuetan finkatzen ari zenerako, industrietatik bertatik sortutako pertsonaia batzuk bilakatuko dira industri gizon: nagusi-orde batzuk, tekniko espezializatuak eta, noski, ugazaben semeak.

Argi dago, halere, gutxi-gutxi izan zirela behe-behetik hasi eta enpresa handi eta arrakastatsuen jabe bihurtzera iritsi zirenak, hots, ezbaian jarri behar dela *self made man* delakoaren mitoa: enpresari arrakastatsu izatera iritsi zirenen artean, ugariak kapital txikiren bat zuten familietatik sortu ziren edo, gutxienez, erlazio-sare ona eduki zezakeenetatik, beharrezkoa zuten kapital hura eskuratzeko alegia. Gainera, kontuan hartu behar da gehien aztertu diren historiak arrakasta izan zuten enpresenak direla, eta ugariagoa izan zela porrot egin zuten enpresa-proiektuen kopurua...

Izan ere, lehen aipatu dugun bezala, lehenengo fabrikak muntatzeko ez ziren demasezko kapitalak behar, batez ere gaur egun industria-proiektu bat abian jartzeko behar direnekin konparatzen baditugu. Horregatik, lehenengo uneetan, kapitalizazio-tresna egokiak izan zitezkeen familiaren aurrezkiak (edo are aurrezki pertsonalak), ezkonsariak, familiaren edo adiskideen maileguak (kreditu ez-formala), langileei egindako soldaten ordainketa atzeratuak (*long pay* delakoak) edo hornigaietan egindako ordainketak lantegiko kantinan edo ekonomatoan bertan (langilearen esplotazioa, azken finean). Enpresak txikiak muntatutakoak, eta autofinantzazioak rol nagusia jokatzen zuen haien martxan: ez zen gehiago behar (geroago bai) eta, gainera, sozietate anonimoa bezalako enpresa zabalagoak eratzea zailegia edo konplikatuegia suerta zitekeen (1720ko *Bubble Act* legeak, finantza-eskandaluak mugatzeko ebatsia, larriki mugatzen zuen sozietate anonimoen eraketa, Parlamentuak onartu behar baitzituen... Trenaren *boomarekin* bat muga horiek deuseztatu ziren, 1850eko *Limited Liability Act* delakoaren bitartez enpresa handiagoak, kapital zabalagokoak eratzeke premia handiagoa zegoen heinean).

Horrekin lotuta, Britainia Handiko Industri Iraultzaren beste ezaugarri bat komentatu beharra dago: bankagintzaren rol erlatiboki ahul edo ilunarena, batez ere geroago etorriko diren beste nazio batzuen industrializazio prozesuekin konparatzen

badugu. Ez dirudi, ordea, hori Britainia Handiko Industri Iraultzaren faktore mugatzailea izan zenik. Izan ere, agian aldrebes da, ingeles bankagintzak ez zion industriari kasu handirik egin, industriak, lehenengo fase haietan, behar izan ez zuelako. Horrela, merkatarien eta nekazaritza-lurren jabeen aurrezkoa xurgatzen zuten probintzia-banku txikiak ez zuten industria-enpresekin harreman sendoegirik izan, eta kapital zirkulatzailerako finantzatzeko (soldaten ordainketa, lehengaiak...) epe laburreko maileguak izan ziren probintzia-banku horiek enpresa industrialei eskaini zieten zerbitzurik erabiliena, ohiko merkataritza zerbitzuez gain noski (deskontua, truke-letren igorpena...).

Klase ertain baten zabalkuntza ere kapitalismo industrialaren garapenaren ezaugarri bat izango da: sistema ekonomikoak eta hiritartzeak behar zituen profesionalen eta lanbide liberaldunen kopuruaren hazkundeak bitarteko gizarte-talde sailkagaitz horren kideak ugaltu zituen, prozesu ez gutxitan kontraesankor batean, zeren klase ertain (nolabait) *berri* bat eratzen eta zabaltzen zen bitartean (enpresa munduarentzako lan egingo duena, zuzenean edo zeharka: ingeniariak, managerrak, aholkulariak, goi funtzionarioak, katedradunak, abokatuak, medikuak, arkitektoak etab.), Antzinako Erregimeneko gizarteetan klase ertain *zabartzat* joenezakeena (*burgesia txiki* hura: dendariak, maisu eta ofizial artisauak...) murrizten joan zen, eta, kasu askotan, langile soldapetuen taldeekin bat egiten, edo “proletarizatzen”, ikertzaile marxistek adierazi ohi zuten bezala. Prozesu bat ez dena guztiz itxi edo geratu, gaur egungo kapitalismoan klase ertainekotzat jo ohi ziren profesional askoren lan baldintzen murrizketa, aldakortasuna eta egonkortasun eza (lanbide eta bizilekuarena, langabezia eta kontratu aldiak etengabe tartekatuz, eta langile autonomo “faltsu” bihurtuz, maiz) kontuan hartuz (hainbeste ezen Guy Standing bezalako egile batzuk hasi baitira jada talde sozio-ekonomiko berri batez hitz egiten, *prekariarigoaz* alegia [*precariado, precarial*], gero eta presenteago egongo litzatekeena gizarte garaikideetan).

Edonola ere, gorago aipatutako ezaugarri sozial horiek guztiak lehenengo industri iraultzari badagozkio ere, esan beharra dago, ñabardurekin, errepikatu egin zirela gainontzeko XIX. mendeko industrializazio prozesuen hastapenetan, beste herrialdeetan alegia. Beraz, adibide zabalgarritzat edo eredutzat har daitezke, kontu honetan ere, arazo handiegi gabe.

### 3.5. Britainiar industri iraultza.-

Industrializazioaren eta kapitalismoaren bilakaera goiztiarrak maila teorikoan ikusi ondoren, prozesu horiei hasiera eman zien Industri Iraultzaren (edo industri iraultzen) abioa aztertuko dugu orain, Britainia Handiko kasutik hasita.

Terminoaren inguruko eztabaida luzea alde batera utzita (dei al dakieke “iraultza” horren denbora luzean gauzatutako aldaketa batzuei? Aldaketa horiek, benetan izan al ziren horren erradikalak? XVIII. mendearen bigarren erdialdean eta XIX.aren hasieran gertatu zela esatea ez al da erredukzionista? Ez al zettorren lehenagotik aldaketa, Aro Berriaren hasieratik adibidez?), esan daiteke Britainia Handiko Industri Iraultza lehenengoa eta, hortaz, berdingabea edo bakarra suertatu zela; izan ere, aipatu bezala, egile batzuentzat, Industri Iraultza terminoa soilik Britainia Handian gertatutakoaz hitz egitean erabili beharko litzateke. Paregabea izan zen, azken batean, gero etorri ziren Industri Iraultza edo industrializazio prozesuek Britainia Handikoa izan zutelako eredu (edo kontraeredu, noski), eta baita erronka ere, Britainia Handikoa “konpetentziarik” gabe loratutako prozesua izan zelako; hurrengo guztiek beste herrialde industrializatu batzuen lehia jasango beharko dute, are herrialde “aurreratuenek” ere, horiek Britainia Handiarena jasan behar izan baitzuten gutxienez...

Industri Iraultzak abian jarri zuen industrializazio prozesuaren ezaugarri inportanteena, fabrika-sistemaren nagusigoaren hasiera izan zen, hots, alde batetik makinak giza abilezia eta ahalegina ordezkatzeko hasi zirela; bestetik, energia bizigabeek energia biziarena ordezkatzeari ekin ziotela; eta, bestetik, lehengai eta energia iturri berrien (eta



agorgarrien) erabilera intentsuagoa zabaldu zela. Hori guztia, aurreko gaian aipatu bezala, kapitalismoaren hedakuntzarekin eta sakontzearekin batera gertatzen da, ekonomia eta gizarte antolatze bide nagusi gisa alegia.

Ezin da kausa bakarrek eman. Ekonomiaren antolaketaren aldaketa horren arrazoiak bat baino gehiago izan ziren, eta denak izan ziren, modu batean edo bestean, inportanteak. Urteetan zehar, historialariak saiatu dira Britainia Handia Kontinentetik desberdintzen zuen faktorea isolatzen: harrikatza zuela ugari, bere sistema politikoaren berezitasunak, demografia-estruktura “modernoagoaren” zantzuak, nekazaritza-aurrerapenak, ingeles enegoietarako joera eta inbertsio-tasak... Guztiak izan dira, egile batzuen edo besteen eskuetan, Industri Iraultzaren faktore desberdintzaile eta erabakigarriak. Baina eskualde-konparaketak eginez gero, nahikoa argi ikusten da Kontinenteko eskualde batzuen garapen-maila ez zela gehiegi urruntzen Britainia Handiko industri erregio berri horietako batzuenetik. Hori bai, konparaketa herrialde edo nazio mailan eginez gero, desberdintasunak argiagoak dira, bai aberastasunari dagokionez, bai faktore horren hazkunde erritmoari dagokionez (beste era batean esanda, industri eskualdeak gehiago zirela edo, gutxienez, Britainia Handian pisu handiagoa zutela esan dezakegu). Edozein kasutan, mugimendua martxan jarri ondoren, beste herrialdeei ez zitzaizkion hura jarraitzea beste erremediorik geratu.

Azken finean –hau ere azpimarratu behar da– Britainia Handiko Industri Iraultza ere eskualde-fenomeno bat izan zen: Britainia Handian bertan oso garapen azkarra eta erradikala izan zuten erregioekin batera (Lancashire, Sheffield...), eta askotan haiengandik geografikoki oso hurbil, nekazaritza-ekonomia tradizionalarekin loturiko eta garapen maila nahikoa baxuak edo *atzeratuak* zituzten eskualdeak (gehiengo) aurki ditzakegu. Kontinentean bezala, hain zuzen. Prozesu horretatik, izan ere, marjinatuta geratu zen Irlanda, nekazaritza-herrialde kolonizatu bat izaten jarraitu zuena, funtsean (iparraldeko konderri batzuk alde batera utzita): lan-esku merkea eskaini zion, nagusiki, Ingalaterrako eta Eskoziako hiri industrialei (emigrazio jario inportante bat egon zen Irlandatik Britainia Handira XIX. eta XX. mendeetan zehar).

Kronologiari buruz, arestian eztabaida ugari egon bada ere, gaur egun nahikoa adostasuna dago, data zehatzek dituzten arazoak kontuan harturik beti: 1760-1830 epealdia (edo 1750-1850, luzeago bat aukeratuz gero) izango litzateke Industri Iraultzarena, ordutik aurrera industrializazio prozesu finko bat garatuko litzatekeelarik; horren ondorioz, Britainia Handia munduko lehen nazio industrialia bihurtu zen, nagusia hortaz, Munduaren Lantegia (“*Workshop of the World*”). XIX. mendearen azkeneko hamarkadetan, ordea, lidergo hori kolokan jartzen hasi ziren industrializazio prozesu hazkor eta indartsuak jasaten ari ziren beste herrialde batzuk, Amerikako Estatu Batuak eta Alemania batik bat.

Britainia Handiko Industri Iraultzaren faktore lagungarriak (baina ez nahikoak) aipatzerakoan, bik dute tradizio handiena: alde batetik, demografia arloan gauzatutako aldaketak, eta, bestetik, Nekazaritza Iraultza delakoarenak.

Populazioaren egitura gertatutakoari dagokionez, argi dago Industri Iraultza populazioa hazten ari zen testuinguru batean jazo zela. XVIII. mendea hazkundekoa izan zen, orokorrean, Europan (honetan zer ikustekorik izan zuten izurri bubonikoen desagertzeak, Amerikatik ekarritako landare elikagarri berrien ezarpenak –artoa, patata...–, garraio-sareen hobekuntza orokorrak...), eta berau bereziki nabarmena izan zen Britainia Handian, batez ere mendearen bigarren erdialdean, hots, Industri Iraultzaren hasiera garaian (populazioa urteko %0,35 hazi zen mendearen lehenengo erdialdean, eta %0,84 bigarrean, antza denez heriotza tasaren jaitsiera bati esker batez ere). Industrializazioak eta Nekazaritza Iraultzak, heriotza tasaren jaitsieraren eta jaiotza tasaren hazkundearen konbinazioaren kariaz, populazio hazkundera emendatu zuten, baina, aldi berean, biztanleria handiago batek lan-eskua eta merkatu zabalago bat eskaini zizkion Industri Iraultza berari, eta hori bereziki inportantea izan zela dirudi, gaur egungo ikertzaile gehienek barne-merkatuaren garapena azpimarratzen baitute Industri Iraultzaren eragile nagusi bezala,

atzerriko merkatuen garrantzia murriztuz, gero ikusiko dugun bezala. Izan ere, XIX. mendean Britainia Handia nazio emigrantea izan zen, hots, garapen ekonomikoa ez ezik, “populazio-soberakin” bat ere produzitu zuen.

Nola eragin zuen Britainia Handiko populazioaren hazkundeak Industri Iraultzan? Ester Boserup ekonomialari daniarraren eskemaren arabera, populazio handiago baten presioak antolaketa- eta teknologia-asmakuntzak bilatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko pizgarria emango zukeen, baina mekanismoa ez da hain argia, populazioaren hazkunde bizkorregi batek justu kontrako efektuak izan ditzakeelako ere: aberastasunaren hazkunde baina azkarragoa bada, oztopo gaindiezinak jar diezazkioke Industri Iraultzaren funtsezko prozesua den inbertsio produktiboari, herrialde azpigaratu askoren adibideek erakutsiko luketen bezala, egun.

Gainera, Industri Iraultzaren ondorio demografikoak kontraesankorrak izan daitezke. Hazkundearen zatirik handiena heriotzaren jaitsiera erlatiboari egotzi ahal bazaio ere, XVIII. mendearen bigarren erdialdean eta XIX.aren lehenengoaren hazkundearen zati batek izan zuen zer ikusirik jaiokuntzen gorakadarekin ere, eta hori, Jack Goldstonek azpimarratu bezala, ezkontza-adinaren jaitsierarekin egon zen lotuta; Edward Anthony Wrigley eta Roger S. Schofield historialariek ere argudio hori erabili dute. Izan ere, joera hori konderri industrialetan nabarmenagoa izan zen, baina lehendik ere bazen ezaguna, etxeko eskulangintza praktikatzen zen eskualde protoindustrialetan; industrializazioak eta fabrikek eskainitako lanpostuek bilakaera hori sustatu zuten, edonola ere: langilea, lurra oinordetzan jasotzeko itxaron beharrik gabe, gazteago ezkon zitekeen, jaiotzak bultzatuz. Ematen du, hala, garai gehienetan populazioaren hazkundearen erantzule nagusia heriotzaren murrizketa izan zen arren, XVIII. mendearen bigarren erdialdean, bereziki, jaiotza tasaren hazkundeak garrantzia handixeagoa izan zuela.

Beraz, egia da populazioaren hazkundeak lagungarria izan zela Industri Iraultzarentzat, merkatu zabalagoak eta lan-esku ugariagoa eskaini zuen heinean, baina ez da ahaztu behar prozesuak berak, ezkontza-adinaren jaitsieraren bitartez, hazkunde demografiko berari lagundu ziola.

Nekazaritza Iraultzaren erabakigarritasunari ñabardurak gehitu bazaizkio ere, oinarrizko faktoreetako izaten jarraitzen duela esan daiteke: azken finean, bigarren arloan jende gehiagok lan egin ahal izateko nekazaritza-produktibitateak gora egin behar zuen, halaberrez. Produkzioa eta produktibitatea nabarmen hazi ziren XVIII. mendean zehar, eta Britainia Handian ezagutu ziren azkeneko gose-krisi orokorrak 1709-1710ekoak izan ziren. Kontua da akaso ez dela hain faktore apartekoa (eta, beraz, ez hain “iraultzailea”), dakigun bezala Europako beste eskualde batzuetan (Herbeheretan, Frantziako iparraldean, Alemaniako mendebaldean...) antzeko prozesuak ematen ari zirelako kasik aldi berean.

Nekazaritza Iraultzaren ezaugarriak ezagunak dira, eta kasu batzuetan XVII. eta are XVI. mendetik zetozen aldaketa mantsoen ondorio izan ziren: abeltzaintza eta nekazaritzaren arteko konbinaketa produktiboago baten garapena; ongari eta bazka-landareen erabilera intentsiboagoa; belardi artifizialen eraketa eta lurren drainaketa; ganaduaren ukuiluratzea eta ongariaren produkzio eta erabilera zabalagoa; lur-txandaketa konplikatuagoak, hiru orrietako tradizionala ordezkatzuz eta, ondorioz, lugorrian uzten zen zatia murriztuz edo guztiz ezabatuz (XVIII. mendearen lehenengo erdialdean zabaltzen hasi zen Norfolk sistemak, adibidez, lurra lau zatitan banatzen zuen, zeinetan urtero txandakatzen baitziren bazka-belarren bat, garia, arbia eta oloa); artoa edo patata bezalako landare “berrien” eta produktiboagoen erabilera, etab. Hots, *new farming* delakoa osatzen zuten elementuak, azken finean, gero European zehar zabaltzen joan zirenak, aldagai edo barietate ezberdinetan.

Ezagunak dira, halaber, Nekazaritza Iraultza horren gizarte-ondorioak ere, ez baitzen prozesu ekonomiko soila izan, gizarte mailakoa baizik. Hala, aldaketa horiek, antzinako *openfield* sistema barruan eta laborari txikiek aurrera eramanda gertagarriak baziren ere (historialari batzuek diotenez, behintzat), errentagarriagoak izan ziren batez ere jabego

eta ustiategi zabaletan, edo horien bitartez hedatu ziren areago, eta horren ondorioz, jabeago eta errentari handien zabalkuntza ekarri zuten, maizter txiki tradizionalaren (*freeholder* eta *yeomen* delakoen) gainbehera progresiboarekin batera; Parlamentuaren legeen bitartez estatuak babestutako hesitze-prozesuak (*enclosure*), bestalde, lur irekien eta herri-lurren (*commons*) murriztea ekarri zuen, nekazari txikiaren egoera are gehiago larrituz eta landan produkzio harreman kapitalisten zabalkuntza ekarriz: jornalariak gero eta ugariagoak bihurtuko dira, eta jabe txikien eta maizterren portzentajea txikitzen joan zen. Ezaugarri horiek guztiak argiak ziren XVIII. mendearen bigarren erdialdean, eta sakontzen jarraitu zuten XIX.ean zehar. Horrek metatze-efektu ezberdinak izan zituen britainiar ekonomiaren gain. Alde batetik, populazioaren hazkundera ondorio eztaba daezinak ekarri zituen, goseteak murriztu zirelako eta hornikuntza hobetu egin zelako (Britainia Handia, XVII. mendean elikaduraren zati bat inportatzen zuena, esportatzaile bihurtu zen XVIII.ean). Beste ondorio bat merkatura geroz eta lotuagoa zegoen biztanleria bat izan zen: lurragaltzen zituzten nekazariak jornalari eta, hortaz, soldatapeko bihurtzen ziren, edo artisautza domestikoari ekin behar zioten, edo, azken pauso gisa, hirira jo behar izan zuen, gune industrial berrietan lan egitera; ez zen akaso merkatu zabalegia, pertsona horien erosahalmena ezin zelako oso handia izan, baina merkatu geroz eta ugariago bat eratzen ari ziren eta, gogoratu beharreko zerbait da, Britainia Handiko Industri Iraultza, hein handi batean, kontsumo ondasun merkeen produkzio industrial berrian oinarritutako prozesu bat izan zen. Bestalde, hiriguneak hobeto eta maizago elikatzeko posibilitatea eman zuen Nekazaritza Iraultzak eta, hortaz, baita hiri- eta industria-populazioa hazteko aukera handiagoa ere (nahiz eta hiriak, oro har, ez ziren haien inguruko nekazaritza-populazioarekiko “aske” bihurtu XX. mendera arte: orduraino, hirietako osasun- eta higiene-baldintza kaxkarragoak zirela eta, heriotza-tasa handiagoak izaten zituzten inguruko landa-guneek baino; hala ere, egoera hobetu zen XIX. mendean zehar). Azkenik, gogoratu beharra dago nekazaritzaren eta industrializazioaren arteko erlazioak konplikatuagoak izan zirela: azken finean, Industri Iraultzak, bere aurrerapen teknologikoekin eta tresneria berri eta hobetoaren eskaintzarekin, Nekazaritza Iraultzaren ezaugarrietan sakontzeko aukera eman zuen. Hala, Industri Iraultzarekin zuzenean erlazonaturiko aldaketa batzuek, garrario-arloan eman zirenek adibidez, nekazaritza-aldaketa sakonak ekarri zituzten, laboreak sartzeko merkatu-aukerak zabalduz; gauza bera esan dezakegu siderurgia eta metalurgia arloetan gertatutako aldaketek: nekazaritzarako tresneria merketu eta hobetu egin zuten, nekazaritza beraren produktibitatea igotzen lagunduz.

Britainia Handiko Industri Iraultzaren eragile edo faktoreen artean, tesi klasiko batek atzerri-merkataritzak Britainia Handira erakarri zituen kapitalen garrantzia azpimarratzen zuen, Iraultzaren eragile bezala: bai koloniekiko trafikoan irabazitakoa, bai, oro har, atzerri-merkataritzan lortutakoa, baita esklabo trafikoak emandakoa ere, Eric Williams historialariak defendatzen zuen bezala; gogoan hartu beharra dago XVII. mendearen bigarren erdialdean eta XVIII.aren lehenengoan zehar Britainia Handia bihurtu zela mundu mailako merkataritza-potentzia nagusia, bere Itsas Armadari, bere merkataritza konpainia handiei esker (Sortaldeko Indietako Konpainia Ingelesa, esaterako) eta merkataritza babesteko bere lege merkantilistei esker (Nabigazio Legeak) hain zuzen ere (besteak beste). Izan ere, Karl Marxen *jatorrizko kapital metaketaren* kontzeptua ildo horretatik zihuan [*acumulación originaria de capital, primitive accumulation of capital*]: XVI.-XVIII. mendeen artean kolonien ustiapenean eta nazioarteko merkataritzan irabazitako kapitalek egingo zuten posible, hein batean behintzat, ondorengo industri inbertsioa.

Bestetik, atzerri-merkataritzak eta batez ere kolonietarako merkataritzak beste garrantzi bat izango zuten Industri Iraultzaren finkapenerako: britainiar industri ekoizpenentzako merkatuak zabaltzearena hain zuzen, barne-merkatu estuaren osagarri bihurtuz. Britainia Handia Europarekin aritu zen merkataritzan, batez ere, industrializazioaren abantailak profitatuz, baina baita bere koloniek ere, zeinekiko nagusigoa batik bat politikoa baitzen; Indiaren kasua da aipatuena, haren merkatuaren

handitasunagatik, eta horri XIX. mendean zehar Britainia Handiak eraiki zuen Inperio zabala gehitu beharko genioke (munduak ezagutu duen handiena). Horrek guztiak eraman zuen nabarmen azpimarratzera, alde batetik edo bestetik, atzerri-merkatuek britainiar industrializazioan izan zuen eragina.

Jarrera horiek, ordea, nahiko eztabaidatuak izan dira 1980ko hamarralditik eta, Patrick O'Brienek zioen bezala, gaur egun guztiz ahaztu ezin baditugu ere, nahiko bazterturik daudela esan behar dugu. Alde batetik, badirudi, XVIII. mendean behintzat, koloniek xurgatu zituzten diruak (hots, kolonien mantentze-kostuak: gudarosteak, gerra-ontziak, zainketa-lanak etab.) kolonietatik eta koloniar trafikotik sorterriratu ziren sarrerak baino handiagoak izan zirela. Hala, Jamaikako koloniaren adibidea ematen da beti, baina baita Ipar Amerikako hamahiru koloniena ere: gerra garesti bat eragiteaz gain, Industri Iraultzaren garairako independizatu ziren; gainera, XIX. mendearen hasieran, Napoleonen blokeoari esker Britainia Handiak birtualki kontaktua galdu zuen bere atzerri-merkatuarekin. Hala ere, kontuz ibili beharra dago azalpen mota horrekin, aipatu gastu eta sarrera horiek ez zirelako berdin banatu: Estatuak parte-hartze handiagoa izan zuen gastuetan, Liverpool, Bristol eta Londresko merkataritxeek etekin handiak egin zituzten bitartean (alegia, kostuak publikoak izan ziren, eta irabaziak, batik bat, pribatuak...).

Bestetik, ez dago batere garbi zer egin zen sorterriratu zen dirutza handiago edo txikiago horiekin, eta ikerketa historiografikoek ez dute islatzen gehiengo industria-inbertsiorantz bideratu zenik. Asko, edozein kasutan, merkataritzan bertan berrinbertituko zen eta, ziurrenik, are gehiago lurra erosteko erabiliko zen, hots, ondasun mugiezin ziurretan inbertitu zen: kontuan hartu behar dugu garai haietan, industrializazioa finkatu arte alegia, lurra hartzen zela inbertsio seguru bakartzat, eta, are gehiago, hura zen gizarte-prestigio handiena ematen zuena (gogoratu noblezia zela lurraren gehiengoaren jabea).

Gainera –eta hauxe dirudi erabakigarriena– Industri Iraultza garaiko lehenengo planta eta lantegiek, eskulangileen tailerrek baino inbertsio-maila altuagoak eskatzen zituzten arren, ez zuten, printzipioz, inbertsio *handiegien* premia, eta autofinantzazioa izan zen (enpresa arrakastatsuen kasuan, noski) garai horretan erabilitako bide nagusia.

Edonola ere, industrializazioaren “lurruzte” une horietan atzerriak (koloniak eta gainontzeko herrialde askeak alegia), merkatu bezala, ez zuen osatzen produkzioaren salmentarako zati handiegia, ikerlarien arabera (%15-20 bitartean, askoz jota); barne-merkatuaren bultzada, hortaz, nabarmenagoa izan zen, eta horrexegatik oinarrituko zen kontsumo ondasunen produkzioan hain zuzen ere, eta horregatik azpimarratu da arestian zein inportanteak izan ziren populazioaren hazkundera, alde batetik, eta merkatuarekin lotutako jende gehiago egotea, bestetik.

Hala ere, argi dago atzerri-merkatua (eta kolonietakoa) barnealdekoarentzat osagarri garrantzitsua izango zela, eta hura gabe, ziurrenik, Industri Iraultza motelago gertatuko zela. Ezin da ahaztu Britainia Handiak, XVIII. mendean zehar, bere merkataritza- eta kolonia-lehiatzaile handienak (Frantzia eta Holanda) baztertu eta –hein batean behintzat– garaitu egin zituela, eta bere hedakuntza kolonialak jarraitu zuela XIX. ean zehar, nahiz eta XVIII.aren amaiera aldera Ipar Amerikako kolonia gehienak galdu. XIX. mendean, edonola ere, gero eta garrantzitsuago bihurtu ziren hala kanpo-merkatua nola koloniak britainiar ekonomiarentzat, eta Industriaren eta Inperioaren arteko lotura, are funtsezkoagoa.

Britainia Handiak erraztasun zenbait zituen geografiaren eta garraiorako aukeren ikuspuntutik, beste eskualde batzuekin konparatuta alegia. Alde batetik, kontuan hartu behar dugu Britainia Handia irla bat dela eta, hortaz, defendatzeko eta isolatzeko aukera handiak izan dituela historikoki; hala, ez du XI. mendetik kanpoko inbasiorik jasan eta, hortaz, borrokatu dituen gerra guztiak (zibilak izan ezik, eta Eskozia eta Ingalaterraren artekoak) eta gerra horien ondorioz gerta zitezkeen suntsiketa eta konkistak beti lur britainiarretik kanpo gertatu ziren, hazkunde ekonomikorako lagungarria izan bide zena.

Bestetik, Britainia Handia erlatiboki “trinkoa” eta txikia da, lurralde gisa: itsasotik hurbil dago edozein puntu eta, hortaz, itsasoko garraioaren erabilerak posible egiten zuen kostuen jaitsiera; ibai nabigagarriak, gainera, nahiko ugariak dira.

Izan ere, erraztasun geografiko horietaz profitatuz, XVIII. mendean zehar garraio sare nahikoa eraginkorra garatu zen Britainia Handian. Estatuak jarduera horretan inbertsioak egitera bultzatu zuen arren, ubide eta errepedeen eraikuntza ekinbide pribatuari uzten zion, bidesariak jasotzeko eskubidearen truke. Kabotajeko itsasoko garraioaz gain, bi kontu dira interesgarrienak: ubide-sarea eta errepedeen eraikuntza. 1600 urtean ubideek, osotara, 700 miliatako ibilbideak osatzen bazituzten; 1760an 1400 milia ziren jada, eta 1820an 4000. Ubideek, beraz, ibaien nabigagarritasuna zabaldu zuten, urrun zeuden nekazaritza, meatzaritza eta baita industri guneentzako ere oso lagungarriak gertatu zirelarik, batez ere 1760ko hamarkadatik: lehengaien eta energia-iturrien (adibidez, ikatzaren) garraioa merketu zuten, industria zonak elkartu zituzten, elikagai-hornidura hobetu zuten, eta lanpostu asko sortu zituzten; XIX. mendearen erdialdetik garrantzia galduz joan ziren trenaren ezarpenaren erruz. Bestalde, errepede sarean aurrerapausoak eman ziren: 1750ean 3400 milia zeuden eraikita; 1770ean, 15000 inguru, eta 1836ean 22000. Estatuak bide-sariak lortzeko piztutako interesari eta finantziario erraztasunei esker, hainbat eta hainbat egin ziren (edo hobetu ziren) garai honetan.

Horrek guztiak merkatu "nazional" bateratuago bat eraikitzeko aukera eman zion Britainia Handiari, Industri Iraultza eskariaren aldetik bultzatzeko egokia hortaz: horri guztiari gehitu behar zaio, bestalde, Londres hiriburua Mendebaldeko Europako metropolirik –eta beraz, merkaturik– handiena bertan zegoela: 1800ean 1.117.000 biztanle zituen; Parisek, ordera, 547.000 zituen garai bertsuan.

Uhartearen lehengai horniduraren garrantzia azpimarratu dute egile askok, me-arloari dagokionean, batez ere: Britainia Handian, garai hartan, ezta inu ugari aurki zitekeen (Cornwall), kuprea (Cornwall, Iparraldeko Gales), kaolina (Cornwall), harrikatza (Shropshire, Hego Staffordshire –*Black Country* delakoa, alegia–, Iparraldeko Gales, Lancashire, Tyre...), burdina (Shropshire, Hego Staffordshire, Derbyshire...), gatza (Lancashire), beruna (Iparraldeko Gales, Derbyshire); ehungintzarako zuntza, bestalde, ugaria zen: artilea (Yorkshireko West Riding), lihoa (Clyde bailara –Eskozia–), eta abar... Izan ere, Wrigley bezalako historialariek Industri Iraultzaren muina batik batik harrikatzaren erabileran datzala uste dute, eta nahiko errotuta dago irlak Aro Berriaren hasieratik jasaten zuen gero eta egur eskasia handiagoa faktore “positibotzat” jotzen dutenen iritzia, hori harrikatzaren erabilera berriak eta beste energi iturriak bilatzeko pizgarri izan zelakoan. Hala ere, hau faktore zirkunstantziala izan zela esan daiteke, Europako beste eskualde batzuetan antzeko baldintzak ematen zirelako eta ez zelako, ordea, Industri Iraultzarik gertatu, edo, egon ezean, beste alternatiba batzuk egon bazeudelako (esaterako, ur-indarraren erabilera intentsiboagoa bultzatzea...). Gainera, ez dezagun ahaztu ehungintza sektorearen industrializazioa Britainia Handian aurkitzen ez zen lehengai batean oinarritu zela, kotoian hain zuzen ere, inportatu egin behar zena. Baina egia da, halaber, harrikatzaren meatzaritzak Industri Iraultzarako oso inportanteak izan ziren asmakizun askoren erdigunea izan zela: lurrin makina, burdinbideak, ur-bonbak...

Edonola ere, geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaie, gaur egun, erakunde-faktoreei eta gizarte-giroari, horiek garapen teknikoarekin eta hazkunde ekonomikoarekin nola lotu oso garbi ez dagoen arren. Adibidez, teknologia asmakizun asko Britainia Handian bertan egin ez ziren arren, haien jatorrizko sorlekuetan arrakasta eskasa izan ondoren Britainia Handira eramanak izan ziren, eta bertan hedatu eta perfektionatzeko aukera handiagoak izan zituzten (hala gertatu zen, esate baterako, papera egiteko jarraiko makinarekin, asmakuntza frantsesa zena, berez)... Abantaila instituzionalen artean barne-aduanik ez egotea azpimarratu da, adibidez, merkataritza-trafikoa erraztu egin zuena. Alde horretatik, ez dirudi Estatuak industrializazioari zuzenean lagundu zionik, hots, ez zituen inbertsio zuzenak bideratu eta indarrean jarritako lege batzuek, gutxienez, efektu

kontraesankorrak izan zituzten (ez dago kasu britainiarra konparatzerik Estatuaren protagonismoa handiagoa izan zuten beste herrialde batzuetako ereduakin, Alemaniarekin edo Japoniarekin adibidez, ezta are Frantziakoarekin ere). Baina, beste alde batetik, ez zion traba handirik egin, ez gobernu absolutista batean ohikoa izan zitekeen bezainbestekoa behintzat.

Izan ere, agian inportanteagoa izan daiteke gogoan hartzea Industri Iraultza piztu zenerako britainiar burgesia dirudunak bazuela nolabaiteko eragina gobernuaren gain, XVII. mendeko Iraultzatik hain zuzen ere (1640-1688): Europako erresuma gehienak ez bezala, Britainia Handikoa monarkia parlamentarioa zen XVIII. menderako. Botere publikoetan eta, batez ere, Parlamentuan, klase kapitalistaren eragina (hots, merkataritzaren eta industriaren garapenean interesaturik zegoen taldeena), guztiorokoa ez bazen ere, nahikoa handia zen, beraz; hori nabaria zen, esaterako, ogasun arloan, zeina, krisi eta arazoetatik guztiz libre ez bazegoen arren, Europako orekatuenetakoa zen.

Bestalde, egia da alfabetizazio maila nahikoa handia zela Europako herrialde askorenekin konparatuz, baina ez dirudi hori Industri Iraultza eta batez ere aurrerapen teknologikoak bultzatzeko nahikoa izan zenik, garai honetan alfabetizazioak eta hezkuntza mailak zerikusi gutxi baitzuten, zuzenean, oraindik nahikoa artisautza mailakoak ziren teknikak garatzeko; enpresa buru eta batez ere lantegietarako pertsonal egokiak izateko aukera eman zion, ordea, Britainia Handiko Industri Iraultzari (kudeaketa eta kontabilitaterako, esaterako).

Gizarte-giroa, edonola ere, Europako leku askotakoa baino irekiagoa zen, Kontinentetik joan ohi ziren bidaiariek (*philosophe* frantsesek, adibidez) azpimarratzen zuten bezala. Hala, Britainia Handian aberastea eta gauza berriak eginez arrakasta izatea ez zegoen gaizki ikusita, ezta nobleen artean ere, agian erlijioaren eraginez-edo (gogoan hartu Max Weber soziologoaren tesia, protestantismoa eta kapitalismoaren izpiritu saiaturia lotzen zituen; bitxia da, bide batez esanda, Industri Iraultzako enpresarien artean sekta protestante disidente batzuetako partaideek izan zuten garrantzi nabarmena). Kontinenteko leku gehienetan, ordea, dirua egiteak beste zerbait lortzeko bidea izaten jarraitzen zuten, oro har: noblezia titulu bat erosteko, edo lurra eta gizarte-posizio ohoretsu bat lortzeko, hain zuzen ere. Artisauen gremioek, gainera, eragin txikia zeukaten Britainia Handian, batez ere sektore batzuetan (adibidez, erabat berria zen kotoigintzan). Edozein kasutan, Britainia Handiaren gizarte-antolaketa, oro har, Kontinentekoa baino libreagoa eta irekiagoa zirudien, erlijio-sekta eta adar askorekin, eta liberalismo ekonomikoak hantxe eman zituen pausorik sendoenak, maila ideologikoan bederen, jadanik XVIII. mendearen bigarren erdialdetik (Adam Smithek 1776an eman zuen argitara bere *Nazioen aberastasuna* liburua).

Intelektualaren egoera, ondorioz, nahikoa autonomoa zen Britainia Handian, konparatiboki behintzat, eta ezaguera eta aurkikuntza berriak nahikoa bizkor zabaltzen ziren komunitate zientifiko-teknikoan barna; gainera, metodo zientifikoa nahikoa finkatua zegoen ordurako (gogoan hartu Britainia Handia izan zela XVII. mendeko "Iraultza Zientifikoaren" erdiguneetako bat). Egia da egile batzuek zalantzan jarri dutela ea zientzia formalak eragina izan ote zuen industrializazioaren lehenengo etapetan (esan bezala, asmatzaileak antzinako eskulangileengandik hurbilago egongo zirelako zientziengandik baino), baina ez da ahaztu behar James Watt bezalako asmatzaile eta injineruak, esaterako, hezkuntza formal aberatsa zeukala. Edonola ere, David S. Landes historialariak azpimarratzen duen bezala, garrantzitsuena izan zen, alor horretan, asmakuntza eta asmakuntzen zabalkundearen errutinizazio prozesu batean sartu zirela garai hartan; ez zela ez ohizko zerbait, alegia.

Dena dela, Industri Iraultzaren eragile nagusienetako bat, ezbaierik gabe, teknologi aldaketa bizkorra izan zen, Joel Mokyr edo Nathan Rosenberg bezalako egileek azpimarratu duten bezala. Izan ere, arazo bati aurre egiteko hartzen diren bide teknologikoak hurrengo pausoak baldintzatu eta, akaso, azkartu ditzakete, ekonomia- eta gizarte-aldaketa sakonagoak eraginez; hori gerta daiteke, adibidez, produkzio prozesu batzuetan botila-

lepoak agertzen direnean. Faktore teknologikoez fabrika-sistemaren (*factory system*) ezarpena baldintzatu zutela dirudi, hein batean behintzat, batez ere ehungintza (eta, beronen barnean, kotoigintza) eta siderurgia arloetan, baina baita beste sektoreetan ere. Hala ere, kotoigintzaren lehentasuna azaltzeko orduan arazo konplexu batekin aurkitzen gara, zeinetan hainbat faktorek hartu baitzuten parte.

Fabrika-sistema edo sektore modernoak pixkanaka joan zen hazten, eta, aipatu bezala, ez zen guztiz finkatu 1840ko hamarkadara arte, Industri Iraultza bukatutzat eman dezakegun arte alegia. Edonola ere, ez da ahaztu behar bilakaera hori erritmo mantsoagoan (tradizionalan) hazten ari zen sektore “tradizional” edo “zahar” batenarekin batera gertatu zela, eta batzuetan sektore “modernoaren” garapenak berak hazteko aukerak eman zizkiola sektore tradizionalari ere, N.F.R. Crafts edo Maxine Berg bezalako historialariek iradoki duten bezala. Izan ere, elkar eragiten zuten, eta industrializatzen ari ziren arloen eragina oso handia izan zen artisautzaren azpiadar batzuetan, hala antolakuntzari nola teknologiari dagokionez. Adibidez, iruin-aldiaren industrializazioak ehunketa domestiko tradizionalaren hazkundera eta loraldia bultzatu zituen XIX. mendearen hasierara arte, gutxienez; siderurgia edo garraio arloan egindako aurrerapenak; bestalde, nekazaritza organiko tradizionalaren gain izugarritzko eragina izan zuten...

Britainia Handiko eta batez ere Ingalaterrako eskulangintza garrantzitsuena, Erdi Arotik eta Industri Iraultzara arte, artilearena zen. Zergatik ez zen hori industrializatzen hasi, ordea? Jarduera tradizionalagoa izanik, antzinako ohiturek gehiago pisatzen zuten haren gainean, eta arautuagoa bide zegoen; bestalde, teknikoki ere, haria mekanikoki egiteko zailtasun gehiago aurkezten zituen artileak kotoiak baino, ez baitzen horren malgua.

XVII. mendean, mundu mailako merkataritzaren zabalkundearekin, Asiatik eta, batez ere, Indiatik inportatutako kotoizko ehunak arrakasta handia izaten hasi ziren Britainia Handian eta, oro jar, Europan (ingelesez *calico* eta gaztelaniaz *indiana* izenekin ezagutzen ziren). Izan ere, arrakasta hain handia izan zen ezen Europako gobernuek, eta baita britainiarrak ere, *calico* delako horiek inportatzeko debekua ezarri behar izan baitzuten, artilegintza babesteko helburuarekin (Britainia Handian 1721ean jarri zen indarrean *Calico Act* delakoa). Egile batzuentzat hori izango zen Industri Iraultzaren neurri eragile nagusia, haren ondorioz, zeharka, ingeles kotoi-produkzioa bultzatuko baitzen: ehunak inportatzea galarazita zegoenez, kotoi gordina inportatzen hasi zen, haria eta ehunak Ingalaterran bertan egiteko helburuarekin (gaur egun, ordea, ez da faktore nahikotzat jotzen).

Industria arinean eman ziren, beraz, aipatu sektore moderno horren lehenengo pausoak, kotoi industria sortu berrian hain zuzen ere. Esan bezala, kotoiaren irutea eta ehunketa mende hasieratik zabaltzen ari ziren Ingalaterran, eta sektore horretan emandako asmakizun teknikoek, pixkanaka baina etengabe, maila handiagoko aldaketak eragiten joan ziren, Lancashire bezalako eskualdeetan batez ere. Hala, 1733an John Kay-k *flying shuttle* edo anezka hegalaria asmatu zuen, pertsona bakar bati ehun zabalagoak egiteko aukera eskaintzeaz gain, ehun-aldiaren abiadura biderkatu zuena (bikoiztuz). Asmakizun hori eskulangintza mailakoa zen guztiz –ezin da industrializat jo–, eta, izan ere, ehundegi domestikoetan ezarri zen, batez ere 1760ko hamarkadatik aurrera, jarduera merkatuz eta erraztuz. Baina beste ondorio bat ere izan zuen: ehunketa aurreko produkzio-fasean (iruin-aldian) itomen teknikoak eragin zituen, lehen aipatutako botila-lepo klasiko horietako bat. Kontua da ehunketaren erritmoa mantentzeko –hazten ari zen eskari batentzat, gainera– goruz edo eskuz aritzen ziren irule gehiago erabili behar zela, merkatarientzat kostuen igoera ekartzen zuena. Iruin-aldia bizkortuko zuten makinak asmatzeko pizgarria sortarazi zuen horrek, hots, aldi berean hari gehiago egiteko eta gizakien hatzen parte hartzerik gabe ibiltzeko gai izan zitezkeen makinak.

Ildo horretan asmatutako lehenengo iruteko makina John Wyattek eta Lewis Paulek patentatu zuten 1738an (*roller spinning machine* delakoa), zeinak oraindik erabilera domestikoa baimentzen baitzuen; ondorioz, ez zuen arrakasta handirik izan eskala handiagoan ezartzen saiatu zirenean. Lehenengo pauso sendoa arlo horretan 1764 eta 1768 bitartean eman zen,

James Hargreavesek *spinning jenny* (edo, besterik gabe, *jenny*) delakoa asmatu zuenean, haria askoz ere azkarrago egiten zuena hamarnaka ardatzei esker, bi ehundegi hornitzeko adina alegia. *Spinnig jennya* lantegi domestikoetan erabil zitekeen oraindik, baina hari fabriketan ere hasi zen erabiltzen. Alde honetatik, edonola ere, ziurrenik erabakigarriagoa izan zen Richard Arkwrightek asmatu zuen *waterframe* delakoa (1768-72), zaldi-indarrez (hasieran) eta, batez ere, ur-indarrez mugitzeko egin zena, hari gehiago eta lodiagoak egiteko posibilitatea eman ez ere, eta oso bizkor zabaldu zena: energia-iturri handi batek mugitu behar zuenez, ez zen errentagarria lantegi txikietan erabiltzeko; gainera, *waterframe*aren lehenengo ereduak zurezkoak ziren arren, laster hasi ziren egiten burdinazko geroz eta atal gehiagorekin, makina nabarmenki garestituz. Samuel Crompton-en *mule-jenny* delakoa izan zen, azkenik, kotoigintzaren iruin-aldiko asmakuntza nagusienetako bat (1779): aurreko bien abantailak bateratuz, mekanismoa oraindik bizkorrago hedatu zen, hurrengo iruteko makinaren eredu bihurtuz (XIX. mendeko *self acting machine* delakoak). Gainera, *muleari* lurrun-indarra aplikatzen hasi zitzaion nahiko bizkor. Cromptonen makina zabaltzean, gainbehera osoan erori zen eskuzko irutea, eta hari gehiena hamarnaka eta are ehundaka langile biltzen zituzten lantegietan produzitzen zen.

Kontua da iruin-aldian gauzatutako berrikuntza teknologiko horiek guztiek desorekatu zutela, berriro ere, irudin-aldiaren eta ehunketa fasearen arteko harremana, ehulearen rola indartuz: orain haria azkarrago eta kopuru handiagoetan iristen zen ehulearen eskuetara, eta ehunketa fasearen kostuak igotzen hasi ziren. Hala, ehunketa domestikoa industrializatzeko edo mekanizatzeko pizgarriak sortu ziren. Edmund Cartwright abadeak patentatu zuen, 1785ean, lehenengo ehundegi mekaniko eraginkorra, baina konplikatu egia zenez gero ez zen askorik hedatu. Izan ere, akatsak gainditzeko zituen lehenengo ereduak ez zen 1803 arte amaitu, eta hala ere gizarte-erresistentzia handia izan zen ehule tradizionalen aldetik (luddismoa, makinaren suntsipena aldarrikatzen zuten eskulangileen mugimendua, lana kentzen zitelakoan, ehundegi mekanikoen aurkako giro horretan mamitu zen, batik bat). Arlo horretako asmakuntza garrantzitsua Sharp & Roberts makina izan zen, 1820 urtean: horren zabalkuntza hasi zen baztertzeko, behin betirako, eskuzko ehuleen lana. 1820ko hamarkadaren bukaera aldera hasi ziren nagusitzen.

Asmakuntza horiei guztiei, zeinak gehienetan ur-indarrez mugitzen baitziren, lurrun-makinaren gehitu behar zaio, ura harriatzaren konbustioaz berotuz energia lortzen zuena. Lurrun-makina ez zen izan Industri Iraultzaren eragilea (prozesua abian zen industrian eraginkorrak izan zitezkeen lehenengo lurrun-makinak asmatu zirenean), baina ezin da Britainia Handiko industrializazioa ulertu lurrun indarrik gabe: Industri Iraultza finkatzeko funtsezkoa izan zela esan dezakegu, industria bizidunen energiaren erabileratik askatu zuelako, eta baita derrigorrez ur-korronteen ondoan kokatu beharretik ere.

Lehenengo lurrun-makinak, Savery eta Newcomen modeloak, XVIII. mendearen hasieran asmatu ziren, eta soilik lerrozuzeneko mugimendu bertikal bat lortzeko gaitasuna zuten gero, ura punpatzeko erabiltzen ziren bakarrik; izugarriko harriatz kontsumoa egiten zuten (oso eraginkortasun termiko gutxi zeukaten) harriatz meategietan erabili ziren, batik bat, han zirelako soilik errentagarri. Asmakuntza erabakigarria, arlo horretan, James Watten makina izan zen, 1769 eta 1784 bitartean garatua eta higidura zirkular bat eragiteko gai zena eta termikoki Newcomenen makina baino askoz ere eraginkorragoa zena; hori dela eta, laster makinak mugitzeko hainbat arlotan erabilia izan zen: kotoigintzan, noski, baina baita ehotzean, siderurgian, garagardogintzan, metalgintzan, zeramikan, azukregintzan eta abar.

Eskulangile familia batek ezin zituen jasan makina horiek guztiek ekartzen zituzten inbertsio-kostu handiak; izan ere, aipatu bezala, eraginkorrak ziren eskala handiagoan, hots, gero eta fabrika handiagoetan kokatuz gero. Lurrun-makinaren erabilerak joera horiek indartu zituen. Hortaz, kotoigintzaren iruin-aldian *factory systema* zabaltzeko arrazoien artean aipatu teknologikoen rol handia jokatzeko dute historiografia ekonomikoan. Friedrich Engelsek 1845ean esaten zuen bezala, “industriak esku oso gutxitan zentralizatzen du jabegoa.



Kapital handiak exijitzen ditu, eta horiekin etxe erraldoiak eraikitzen ditu –artisauen burgesia txikia errekarera eramanez–; kapital horien laguntzaz naturaren indarrak menderatzen ditu, esku-langile indibiduala merkatutik botatzeko asmoz. Lanaren banaketa, indar hidraulikoaren erabilera eta, batez ere, lurrinaren indarra, makinismoa: horra hor zeintzuk diren, joan den mendearen erdialdetik, industriak erabiltzen diren hiru palankak, mundua oinarrietatik altxatzeko. Manufaktura txikiak klase ertaina sorrarazten du, industria handiak langile klasea, eta azken horrek tronura igoarazten ditu klase ertaineko hautatu zenbait, nahiz eta ziurrenik egunen batean bertatik botako dituen. Bitartean, egitate ukaezina da, erraz azal daitekeena, nola ‘garai on zaharretako’ burgesia txiki ugaria suntsitu duen industriak, eta bitan banatu den: kapitalista aberatsak alde batetik, eta langile pobreak bestetik”.

Horrek ez du guztia esplikatzen, dena den; esate baterako, Arkwrighten makinak bazuen eredu txikiago bat, lantegi domestikoetan erabiltzeko aproposa izan zitekeena, baina asmatzaileak irabazi handiagoak emango ziokeen eredu “handia” garatu zuen, eta *waterframez* hornitutako Cromford-eko fabrika-eredua muntatu zuen 1771 urtean, zeinetan 300 beharginek egiten baitzuten lan: hori izan zen beste enpresa askok imitatu zuten eredu, hain zuzen ere. Stephen Marglin ekonomialariaren arabera, hala, fabrika ez da teknologiaren ondorio soila: ez zen sortuko eraginkortasun produktibo handiagoa zuelako, baizik eta lan-eskuaren kontrol estuago bat lortzeko. Ez dirudi kasualitate teknologiko hutsa lan-eskuaren kontrol estuago baterako aproposak ziren makinak garatu izana: lan-erritmoa enpresariaren nahietara egokitzen zen, eta lan-prozesua hobeto gainbegiratzen zenez, kalitate aldetik ere kontrola hobeagotzen zen, lantegi domestiko ugarien produkzioarekin gertatzen ez zena alegia. Fabrikaren jaiotzak, azken finean, kapitalaren eta lanaren arteko geroz eta diferentzia handiagoak markatuko zituen: enpresarien eta langileen klaseen desberdintze prozesua bizkortu eta ekarriko du.

Prozesu honen ondorioa da hiritartzearen bultzada berria ere, horrek ekarri zituen aglomerazio-ekonomiekin (elkarren osagarriak gerta zitezkeen enpresen eta lantegien pilaketak eragindako aurrezkiek edota irabaziek eragiten dituztenak, alegia); Engelsek bere *Langile klasearen egoera Ingalaterranen* bikain azaldu zuenez (1845), industriaren joera zentralizatzailea oso ahaltsua da: “biztanleria kapitala bezainbeste zentralizatzen da; ezer naturalagorik ez, zeren eta industrian gizona, langilea, kapitalaren frakzioztat baino ez da hartzen, zeinari industrialak interes bat ordaintzen baitio –soldata deitzen dena–, bere burua erabilia izateko eskaintzearen trukean. Industria-etxe handiak eraikin batean elkarrekin lan egiten duten langile ugari eskatzen du; elkarrekin bizi behar dute: fabrika ertain baterako gutxienez herrixka bat eraikitzen da inguruan. Langile horiek premiak dituzte eta, horien asetzea ziurtatzeko, beste pertsona batzuen beharrean daude: jostunak, zapatariak, okinak, igeltseroak eta arotzak tropelka datoz. Herrixkako biztanleak, gazteenak batez ere, fabrikako lanera ohitzen dira, horretan trebatzen dira, eta aurreneko fabrika, sortu zen gisara, guztiei lana eskaintzeko gai ez denean, soldata jaisten da, eta, ondorioz, industria-enpresario berriak kokatzen dira bertan. Bitartean herrixka hiri txiki bihurtzen da, eta hori hiri handi. Zenbat eta handiagoa hiria, orduan eta handiagoak aglomerazioaren abantailak. Burdinbideak eraikitzen dira, ubideak eta errepedeak; langile adituen aukeraketa gero eta zabalagoa da; eraikitzaileek eta baita makina-fabrikatzaileek ere elkarri egiten dioten lehia dela medio, asko baitira, lantegi berriak sortu daitezke eskualde urrunetan baino merkeago, horretara lehenago eraman beharko bailirateke eraikuntzarako egurra, makinak, eraikina altxatzen duten langileak eta industria-langileak. Gainera, merkatu bat dago, Burtsa, non erosleak metatzen baitira, harreman zuzenak baitaude lehengaia hornitzen edo produktu bukatuak jasotzen dituzten merkatuekin. Hortik hiri industrialen garapen bizkor harrigarria”. Baina horrek ez du esan nahi landan industrigune berriek sortzen jarraituko ez zutenik: industrializazioaren zabalkuntzak aurrera egingo zuen oraindik; Engelsek jarraitzen zuen bezala, “zer esanik ez, landaren abantaila soldata oro har baxuagoetan datza; nekazaritza-eskualdeek eta hiri industrialak, modu horretan, elkarren arteko lehian diraute

beti, eta gaur abantaila hiriaren aldekoa bada, bihar soldata horrenbeste jaitsiko da inguruko eskualdean ezen lantegi berrien eraikuntza abantailatsua bihurtuko baita bertan. Baina, hala eta guztiz ere, joera zentralizatzaileak oso indartsua izaten jarraitzen du, eta landan sortzen den industria berri bakoitza hiri industrialaren hazia darama bere baitan. Industriaren jarduera ero hau mende oso batez luzatu ahal balitz, Ingalaterrako barruti bakoitza hiri industrial bakarra bihurtuko litzateke, eta Manchesterrek eta Liverpoolek bat egingo zuketzen Warrington-en edo Newton-en. Populazioaren zentralizazio honek eragina dauka, halaber, merkataritzan, modu berean guztiz, eta hori dela eta portu handienetako batzuek – Liverpool, Bristol, Hull eta Londresek– inperio britainiarraren itsas merkataritza ia osoa monopolizatzen dute”.

Edonola ere, *factory systema* beste azpi-arloetara zabaltzen joango zen, kasu batzuetan mantsoago, arazo teknikoak zirela eta –hori gertatu zen, esaterako, artilegintzan, zuntz horren bereizitasunak direla eta–. Hala, kotoiaz aparte, gainontzeko zuntzak batez ere XIX. mendearen lehenengo erdialdean industrializatzen joan ziren: lihoa, artilea, jutea, etab. Hala ere, kotoigintzan gertatutakoak beste arlo desberdin batzuetan ekarri zituen aldaketak: industria kimiko modernoa, esaterako, kotoi hariak eta ehunak garbitzeko, leuntzeko, tindatzeko eta zuritzeko premia gero eta handiagoei erantzuna emateko sortu zen, batez ere (arazo hauek azido sulfurikoaren erabilerak –1746tik garatua–, Leblanc sodaren asmakuntzak –1790– eta kloroaren erabilerak –1800etik aurrera– konpondu zituzten); gas produkzioa, laster argiketari erabiliko zena, ikatzaren industriaren azpiproduktu bat izan zen, eta 1812tik aurrera garatu zen; porlanaren industria modernoa 1820ko hamarkadan hasi zen abian. Sektore modernoan sartzen joan ziren beste kontsumo ondasunen sektore batzuk zeramikagintza eta papergintza izan ziren.

Ikusten denez, eta beti sektore tradizional baten garapen mantsoagoak jarraitzen zuela gogoratu, bilakaera horiek eta *factory system*-aren ezarpena, batez ere, kontsumo ondasunen sektorean edo industria arinean gertatu ziren, hots, zuzenean kontsumitzaileentzako produktu bukatuak ekoizten zuen esparruan, ez beste industria batzuek kontsumitzen dituzten produktuen sektorean (industria astuna). Hori geroago garatu zen, lehenengoaren bultzada eta eskaeraren ondorioz. Kontsumitzaileen barne-merkatu geroz eta zabalago baten garapena, hortaz, eragilerik inportanteenetako izan zen Industri Iraultzaren lehenengo fase honetan, eta produkzioaren zati bat esportatu bazen ere, gehiengoa Britainia Handiak eta Irlandak osatutako “barne-merkatu” hazkorra xurgatu zuen.

Kontua da kontsumo arlo horietan gertatu ziren aldaketekin harremanaturik, sektore berriak modernizatu eta sortu zirela, bitarteko ondasunena eta industria astunarena, kasu batzuetan kotoigintza industrialaren herrestatze-efektuen ondorioz. Horietako bat, aipatu bezala, kimika industriarena izan zen. Beste bat makinagintza eta injinerutza izan ziren: logikoki, Industri Iraultzak asko bultzatu zituen arloak izan ziren, fabrika berriek makinak behar zituztelako eta makina horiek konpontzeko edo berriztatzeko teknikariak, eta pixkanaka independizatzen joan ziren eta sektore modernoaren partaide berri bihurtu ziren. Horiekin batera ere, noski, asko garatu zen erremintagintza. Baina ikuspegi honetatik inportanteena, zalantzarik gabe, siderurgia izan zen. Britainia Handiko Industri Iraultzaren *trilogia*, beraz, kotoiak, harrikatzak eta burdinak osatuko lukete.

Britainia Handiko siderurgiaren egoera, XVII. mendetik, geroz eta zailagoa zen: deforestazioak eragindako erregaiaren garestitasuna zela eta, burdina produzitzeko kostuak handiagoak ziren eta, ondorioz, haren lehiakortasuna gero eta txikiagoa zen. Horri aurre egiteko, burdin landuaren inportazioa areagotzeaz gain (Euskal Herritik, adibidez, baina, geroz eta gehiago, Suedia edo Errusia bezalako eskualdeetatik), egur ikatzaren orde z harrikatza erabiltzeko saialdiak egin ziren, baina teknika aproposa aurkitzea zaila izan zen, harrikatze egindako burdinak karbono gehiegi xurgatu eta kalitate txarrekoa ateratzen zelako.

Saialdi ugarien ondoren, Abraham Darbyk helburu hori lortu zuen Coalbrookdalen zeukan labe garaian, 1709an, harrikatzaren ordezkokea erabiliz (hots, harrikatz distilatua); burdinurtua harrikatzeaz egitea lortu zuen, beraz. Hala ere, asmakizun hori oso mantso joan zen zabaltzen (mende erdialdean, oraindik, oso gutxi ezagutzen zen), Darbytarrak sekretuan mantentzen saiatu zirelako (asmakuntzaren monopolioaren kostu-abantailak aprobetxatzeko) eta, hasieran, kostuak ez zirelako egur ikatzarenak baino askoz ere txikiagoak. Edonola ere, 1760rako Carron-eko eskoziar kanoi-fabrika famatuak harrikatza erabiltzen zuen eskuarki bere eguneroko produkzioan. Hala ere, burdinurtua burdina gozoa bihurtzeko derrigorrez egin behar zen fintze-fasean burdinola tradizionala eta egur ikatza erabiltzen jarraitzen zirenez, teknika tradizionaletikiko menpekotasunak jarraitu zuen.

Fintze-fasean, beraz, aurrerapenak mantsoagoak izan ziren eta ez zen bertan kokea erabiltzen hasi Henry Cort-ek *puddler* delako erreberberazio labea asmatu zuen arte, 1784an; hori bai bizkor hedatu zela, burdin fabrikak egurraren mendekotasunaz askatuz. Watten lurrun makinak ere, bestalde, laster hasi ziren burdin fabriketan erabiltzen, hauspoak, mailuak eta gabiak mugitzeko, mozkailuak eta ijekailuak [*laminadoras, rolling mills*] eragiteko, etab. (lehenengo ijekailu mekanikoa, antzinako fanderiak ordezkatzera deitua, Henry Cortek berak patentatu zuen 1783an). Horrekin guztiarekin siderurgia uraren eta basoaren mendekotasunaz askatzen hasi zen eta ikatz meategietatik hurbil kokatzen hasi ziren; ez da harritzekoa ikatz arroak bihurtzea, XIX. mendean, industria astunaren ezarleku aproposenak.

Aldaketa teknologiko horiek guztiek lantegi siderurgikoen tamaina handitu zuten, eta fabrika handiagoen, garestiagoen eta, ondorioz, kontzentratuagoen sorrera ekarri zuen (Sheffield edo Glasgow inguruetan ikusi zen bezala). XVIII. mendearen bukaerarako fabrika-sistema mantso baina etengabe nagusitzen ari zen sektore horretan, aurreko burdinola eta lantegi aurreindustrialen ordezk. Siderurgiak merkatu eta eskari baten premia zuen industrializatzeko (horregatik industrializatu zen lehenbizi kotoigintza), baina maila hori iritsita, sekulako herrestatze-efektuak sortarazi zituen, aurreraka (makinagintza, trenbidea, komunikabideak eta azpiegitura –zubiak, etab. –) eta baita atzeraka ere (harrikatz eta burdin meatzaritza, lurrun-makina...).

Burdinagintzaren eskaria, gainera, gora egiten ari zen. Alde batetik, eskari militarra, Britainia Handiak garai horretan aurrera eramandako gudek eraginda (amerikarren Independentzia Gudatea, 1791-1815 bitarteko Frantziaren kontrakoak...). Eta, bestetik, eskari zibila: nekazaritzaren hazkundeak tresneria eskatzen zuen (aitzurak, goldeak, etab.), eta industrializazioak makineria berria (geroz eta burdin gehiago barneratzen zuena, oraindik egur askorekin egina zegoen arren: iruteko makinak, ehundegi mekanikoa, lurrun-makinak, meategietarako tresna eta burdinbideak... eraikuntza alorrean ere –zubiak, zutabeak, egiturak...– burdinaren erabilpena gero eta ohikoagoa bihurtzen ari zen, bestalde). Hala ere, arlo horretako bultzagile nagusia trenbidea izan zen.

Lehenengo ahaleginak, beti ere ikatzaren meatzaritzari lotuak, XIX. mendearen hasieran gertatu ziren ere (Richard Trevithick meatze-ingeniariaren makina, 1801-1804), baina George Stephenson-en makina izan zen nagusitu zena azkenean, 1822an: urte horretan Stockton eta Darlington arteko lehenengo trenbidea inauguratu zen, eta lehenengo tren-lerro inportantea, Liverpool eta Manchester artekoa, 1830ean abiatu zen. Britainia Handiko oinarrizko tren-sarea 1848 inguruan burutu zen: urte horretan 5000 miliako burdinbideek zeharkatzen zuten Britainia Handia.

Hortik aurrera zabalkuntza oso bizkorra izan zen hala Britainia Handian nola Europa osoan, nahiz eta, askotan, trenbidearekin egindako negozioak ez ziren uste bezain oparoak izan; izan ere, Industri Iraultzaren lehenengo uhinean metatutako kapital asko –gehiegik–, erabilpena aurkitzen ez zutenak, trenbide-inbertsiora zuzendu ziren, bai Britainia Handian bai beste herrialde batzuetan, baina ez zituzten beti mozkinak lortu (izan ere, aro kapitalistako aurreneko finantza-burbuila larriak eratu ziren –ztanda egiteko gero– trenbidearen negozioaren inguruan...). Trenarekin batera, edonola ere, lurrun makinaren

zabalkuntza gauzatu zen Europa osotik eta, ondorioz, industrializazio prozesuaren eta barne-merkatuen integrazioaren bektore nagusienetako bat bihurtu zen, 1840tik aurrera batik bat.

Edonola ere, trenbidegintza eskari paregabea bihurtu zen siderurgiarentzat eta beste industria batzuentzat (adreilugintza, zerrategiak, meatzaritza); horiek dira historialari ekonomikoak atzerakako loturak edo herrestatze-efektuak (*backward linkages*) deitzen dituztenak. Aurrerakako loturak, ordea, garraio bizkorrago baten eskaintzak gauzaturakoak lirake, hots, merkatuak elkartzea eta bateratzea, herrialdeen barnealdean ekoizten ziren produktuentzat aterabidea erraztea, bidaiarien trafiko berria sortzea (eta hortik, denborarekin, turismoaren industria berria...).

Testuinguru honetan, Britainia Handia lehenengo nazio siderurgikoa bihurtu zen. Burdinaren geroz eta erabilera zabalagoa kontuan harturik (eraikuntza, tresna mota guztiak, makinagintza), garapen teknologikoak jarraitu egin zuen siderurgia arloan Britainia Handian, eta XIX. mendean zehar britainiar jatorriko asmakuntza berri batzuek hegemonia horri eusteko aukera eman zioten: adibidez, labe-garaiek produzitutako aire beroaren berrerabilpena labeak berak berotzeko eta konbustioa bizkortzeko (James B. Neilson, 1825 inguruan); Bessemer bihurgailua, burdina gozoa baino kalitate handiago eta erabilgarritasun zabalagoa zen altzairu merkea egiteko (1856) baina, tamalez, ezin zituen erabili burdina mea ez fosforodunak baizik (Bizkaiko burdinaren meatzaritza bultzatu zuena, Somorrostrokoa mota horretako burdina zelako hain zuzen ere); Siemens-Martin prozedura (1860), burdina-txatarraren erabilera posible egiten zuena eta kalitate handiagoko altzairua ematen zuena; eta, azkenik, Sydney G. Thomas eta Percy Gilchrist-ek asmatutako Thomas sistema (1878), edozein motatako burdin mea erabiltzea posible egin zuena; asmakuntza horiek, edonola ere, Bigarren Industri Iraultzaren ekarpen teknologikoari zegozkien jada.

Izan ere, 1870eko hamarkadarako Britainia Handiko siderurgiaren eta, oro har, industriaren lidergoa kolokan jartzen hasi zen: Estatu Batuak eta Alemania Bigarren Industri Iraultza horren uhina harrapatzeko hobeto prestatuak zeuden, hazkunde erritmo biziagoa izan zuten; potentzia siderurgikoak bihurtzen ari ziren mendearen azkeneko laurdenean, eta laster aurreratuko zuten Britainia Handia. Industrializazioa zabaltzen ari baitzen geografikoki, eta baita aldatzen ere prozesu horretan zehar, berehala ikusiko dugun bezala.

### 3.6. Industrializazioaren hedakuntza.

XIX. mendean zehar industri naziorik nagusia Britainia Handia izan zen: 1840 aldera industrialia kontsidera dezakegun nazio bakarra zen, mende erdialdean beste herrialde batzuk industrializazioaren atarian zeuden arren, Industri Iraultzaren lehenengo urratsak eman ondoren: Belgika, Frantzia, Estatu Batuak, Alemaniako eskualde batzuk. Britainiar produktuak, kasu batzuetan berriak, Europako eta munduko merkatuak inbaditzen hasi ziren, 1815 geroztik batez ere. Atzerritar merkatuak geroz eta inportanteagoak bihurtu ziren britainiar ekonomiarentzat.

Britainiar Industri Iraultza eratu zuten faktoreen konbinaketa gertatu ez bazen ere, beste herrialdeetan, batez ere Britainia Handiaren etsaien eta, noski, atzerritar manufaktura-ekoizleen artean argi zegoen Irletan gertatzen ari ziren aldaketan garrantzia. XVIII. mendean azken hamarkadetan zenbait ingeles asmakuntza Kontinentera “inportatzen” eta Europako hainbat eskualdeetan ingeles eredu (hertsiki) jarraitzen zuten fabrika modernoak ezartzen hasi ziren (hots, lurrun-makina, *mule*-ak, labe garaiak, e. a.), adibidez, Valonian, Frantziako ipar ekialdean, Renania-Westfalian, Katalunian... Napoleonen blokeoak eta “Frantziar Gudateek” Europa kontinentaleko bigarren arloaren bultzada baimendu zuten neurri batean, europar merkatuak babestu zituztelako alegia. Dena dela, britainiar eredu ez zen jarraitu itsu-itsuan, besteak beste, eskualde edo nazio ezberdinetako abiapuntuak ez zirelako berdinak, eta baliabideen hornidura (energia-iturriena, lanarena edo

kapitalarena) oso anitzak izan zitezkeelako kasu britainiarrarekin konparatuta; izan ere, industrializazio eredu ezberdinak eta are oso ezberdinak egon zirela esan genezake. Kotoigintzaren eta, oro har, ehungintzaren nagusigoa ez zen Britainia Handian bezain handia izan Kontinentean edo Estatu Batuetan, nahiz eta kasu gehienetan errepikatu zen kontsumo ondasunen industrializazio goiztiarraren eredu, industria astuna haren atzetik hazten joan zelarik.

Baina, normalean, 1815ez geroztik lehenengo hasiera hauek “abortu” bilakatu ziren, britainiar produktu berri eta merkeen “inbasioaren” ondorioz eta guda osteko prezio beherakorren testuinguruan. Egile batzuek azpimarratzen dute, gainera, 1790eko hamarkada eta 1815 arteko “isolamendua”, hein batean behintzat, kaltegarria izan zela europar manufakturaentzako: ingeles produktu gutxiago ailegatu baziren ere (Kontinenteko salgaiak nolabait “babestuz”) aurrerapen teknologikoen ekarriera ere zaildu egin zen eta guda bukatzerakoan, ziur aski, britainiar eta europar beste manufaktura arteko “alde” edo “zanga” (*gap*) teknologikoa inoiz baino zabalagoa izango zen. Diferentzia kostuetan zetzan, batik bat: britainiarrek merkeago saldu zezaketen, konkurrentziarik gabe. Hau zen kotoizko ehunekin gertatu zena, batez ere, eta geroago trenbideetarako materialarekin pasatu zena.

Egoera hau ulertzeko, bestalde, kontuan hartu behar dugu herrialde horietan bazegoela produktu horien sarrera erraztu nahi zuen gizarte-talderik ere, batez ere Britainia Handi hazkor bati nekazaritza-produktuak saldu nahi zizkietenak (XIX. mendean, are gehiago *Corn Laws* delakoan indargabetzeaz geroztik<sup>4</sup>, Britainia Handia elikagaien inportatzaile netoa bihurtu zen, bere hazkunde demografikoaren ondorioz), hots, lurjabeak batik bat: prusiarrek ingelesei ekoizten zuten garia saldu nahi zieten, Estatu Batuetako Hegoaldeko plantazio-jabe handiek nagusiki esklabo-lanaz lortzen zuten kotoia, Frantziak bere ardoa, etab... Interes hauek askotan truke askatasunaren alde agertu ziren eta britainiar industria-nagusigoa erraztu zuten.

Kontinentean eta Estatu Batuetan, ordea, protekzionismoaren aldeko taldeak agertuko ziren ere bai, batez ere manufaktureroen artean. Bigarren arloko enpresario horietako asko, industrializazioaren zabaltze-prozesuan, ingeles eredu hertsiki jarraitzen saiatu ziren (hasiera batean behintzat), Sidney Pollard historialariak dioenez: aldaketa, leku guztietan, ingeles ereduko “fabrika sistemaren” ezarpenarekin, iruteko makinekin, ehundegi mekanikoekin, lurrun makinarekin, siderurgia berriarekin, trenbidegintzarekin... erlazionatuta egongo da, nahiz eta nazio bakoitzean salbuespenak eta “interpretazio” edo egokitzapen autoktonoak gertatu, noski. Dena dela, historialari eta ekonomialari batzuek (Alexander Gerschenkron-ek, adibidez) industrializaziora pixka bat “berandu” iristearan abantailak azpimarratu dituzte: lehenengoak lortzen duen merkatu-nagusigoa alde batera utzita, egia da teknologia, nolabait, finkatuta hartzen zuela “jarraitzaileak”, tarteko hankasartzerik egin gabe: “jarraitzaileek” ez zuten zertan etorkizunik gabeko bide teknologikoak jarraitu eta bakarrik teknologia hoberenak, frogatuak “inportatzen” zituzten. Ez zuten ezer asmatu behar: kopiatzearekin nahikoa zuten. Nazio hauetan, bestalde, lan-eskuaren kostuak aurreratuagoa edo industrializatuagoa zegoen nazioan baino baxuagoak izan ohi ziren, beste abantaila bat izan zitekeena.

Horrek teknologiaren zabalkuntzaren arazora eramaten gaitu. Zaila ala erraza al zen teknologia zabaltzea? Erantzunak, noski, erlatiboak dira. Hasiera batean teknologiaren ezaguera ez zen zientzialari edo teknikari unibertsitarioren kontua, teknikari trebatuena baizik, askotan artisauengandik gertuago zeudenak gaur egungo ingeniariengandik baino. Makinen planoak eskuratzea erraz samarra zen, baina haiekin soilik ezin gauza handirik egin: inportanteena teknologia nola erabiltzen zen ikastea zen, eta hori bakarrik lortzen zen

---

<sup>4</sup> *Corn Laws* edo Aleen legeak delakoak Britainia Handiko bertako oinarrizko nekazaritza-produkzioa babesteko lege merkantilistak ziren, lur-jabeei egiten zietenak mesede; urte askotan zehar enpresari eta langile industrialek haien kontra borrokatu zuten, lehenek soldatak jaisteko itxaropenaz, eta proletarioek bizitzakostua murriztuko zutelakoan. Azkenean, datorren atalean aipatuko dugun bezala, 1846an abolitu ziren

ezaguera zuten pertsonekin ikasten. Horregatik industriak muntatu nahi zituztenak atzerritar teknikariak erakartzen saiatzen ziren, hasiera batean gehienbat ingelesak, noski. Makinak ere ekartzen ziren eta horretarako lege-zailtasunak zeuden, Britainia Handian, mende hasieran behintzat, debekatuta zegoelako, baina hala ere kontrabandoan ateratzea posible zen (debekuak 1843ra arte iraun zuen). Honegatik guztiagatik historialari batzuek, teknologi transferentziei buruz hitz egiterakoan, teknologia hartu behar zuen herrialdearen “gizarte-ahalmena” azpimarratzen dute; adibidez, garapen protoindustrialia ezagutu zuten eskualdeek, printzipioz, teknologi aurrerakuntzak hartzeko ahalmen handiagoa edukiko zuketena... Hala ere, ez da nahikoa eta beste faktore batzuk hartu beharko genituzke kontuan: enpresalgoaren prestakuntza, lehengaien hornidura, hezkuntza mailak...

Industrializazio prozesua eskualde edo erregio-prozesu bat izan zen, nazionala bezainbeste: eredu honetan sartu ziren herrialde gehienetan industrializatu eta garatuko ziren eskualdeak agertuko dira, eta atzeratuta geratuko ziren beste hainbat. Baina azken finean, industrializazioak, erregio konkretu batean edo bitan gertatzen bazen ere, geroz eta gehiago *nazionalak* bilakatzen ari ziren ekonomietan eragiten zuen; XIX. menderako, herrialde askotarako, *merkatu nazionala* edo *nazio-merkatua* delakoaren eraketaz hitz egiten da. Kontuan hartu gobernuek geroz eta politika eraginkorragoak egingo zituztela ekonomia-alarrean, eta Estatua benetako ekonomia-boterea bihurtu zela (teoria ekonomiko liberalek aldarrikatutakoaren aurka): Estatua, A. Gerschenkronnek esaten zuen bezala, industrializazio horietarako “ordezko faktorea” bihurtu zen batzuetan, nahiz eta alor askotan liberalizazio prozesuei ekin (desamortizazioak, eskubide kolektiboen murrizketa, gremio araudien abolizioak, barne-aduanen ezabaketa, errege-manufakturen itxiera...). Trenari eman zion bultzada edo pisuen eta neurrien bateratzea (sistema metrikoaren inguruan ia beti) industrializazio prozesu ezberdinetarako funtsezkoak izan ziren, adibidez. Industrializazio gehienak, gainera, barne-merkatura begira antolatu ziren, eta ez ziren esportazioekiko horren mendeko izan; ez behintzat 1830-40tik aurrerako Britainia Handikoa bezainbeste. Alde horretatik, tamaina handiko merkatuak izatea, barne-trabarik gabekoak, abantaila izan zen prozesu industrializatzaileentzat (hortik, adibidez, politikoki zatituta jarraitzen zuen Alemaniako aduana-batasunaren garrantzia, esaterako).

Trantsizio demografikoa (populazioaren eta, ondorioz, produktu industrialen eskaera handitu zuena) eta Nekazaritza Iraultza (1815etik aurrera gero eta gehiago zabaldu zena Kontinentean barna, klimaren hobekuntza batekin eta Iraultza Burgesek lur merkatuan eragindako aldaketa “askatzaileekin” batera) faktore inportanteak izan ziren, bestalde, industrializazioaren zabalkuntzan, eta elkar eragiten zuten, nekazaritza arloa, apalki bada ere, produktu industrialen gero eta kontsumitzaile handiagoa bihurtu zelako (tresneria, ongariak...), eta industrializazioak berak nekazaritzaren produktibitate hazkundeei laguntza eta oinarri ezin hobeak eskaini zizkielako, batik bat ongari kimikoen produkzioa zabaltzen hasi zenetik, 1840ko hamarraldetik aurrera.

Edonola ere, XIX. mendearen lehenengo erdialdean, esan dugun bezala, nazio industrializatu bakarra Britainia Handia zen. Baina aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari ziren: Trantsizio Demografikoaren hasiera; aipaturiko garraioen “iraultza”; eta emigrazio handien eta nazioarteko merkataritzaren hazkunderaren hasiera, Britainia Handiaren bultzadaren ondorioz alegia. Europako eskualde batzuetan (eta baita Europatik kanpo ere... baina gutxiago) industrializazio “kimuak” agertzen hasi ziren.

Britainia Handia ondoren lehenengo industrializatu zen herrialdea Belgika izan zen. 1830etik aurrera industrializazio prozesu nahiko azeleratu eta azkarrean murgildu zen. Artisautza tradizioaz gain (bai ehungintzan, bai metalgintzan), hauek izan ziren bere abantailak: Ingalaterratik gertu zegoela (teknologi transferentziarako, adibidez); garraioetarako erraztasunak (herrialde laua eta txikia da); nekazaritza-garapen oso nabarmena (Nekazaritza Iraultza Ingalaterrakoa bezain aurreratua zegoen bertan); harrikatzen ugari eta burdin, zink, berun... meategiak; industrializazioaren bihotza Valoniako eskualdean kokatu zen garai hartan. Dena dela, industria astunak garrantzi gehiago izan zuen garapen

honetan Ingalaterran baino, eta hala bankaren protagonismoa nola estatuaren esku hartze ekonomikoa (herrialdea Holandatik independizatu zenetik, 1830ean) faktore bereizgarriak izan ziren, kasu britainiarretik pixka bat urruntzen dutenak.

Frantziako industrializazioari dagokionez bere ustezko “mantsotasuna” eta “atzerakuntza” erlatiboak azaltzeko ahalegin historiografiko handiak egin dira, Britainia Handiarekin konparatuz alegia. 1870eko hamarkadan oraindik ezin dugu kontsideratu nazio guztiz industrial bat, baina bai industrializazioaren ildoan dagoena, argiki, batez ere eskualde batzuk hartzen baditugu kontuan: ipar-ekialdea, Lyon eta bere inguruak, Paris eta bere inguruak. Bultzadarik nabarmenena XIX. mendearen azkeneko laurdenean gauzatuko da. Eredu hau azaltzerakoan kontuan hartu beharko genituzkeen faktorerik inportanteenak hauek dira: britainiar lehentasunak ekartzen zituen zailtasunak; populazioaren hazkunde mantsok barne-merkatu zabalago baten eraketa eta lan-esku hornikuntza ugariago baten aukerak murriztu zituen (XVIII. mendetik, eta *aparteko* kasu demografiko bezala, hilkortasunaren jaitsierarekin batera, jaiokuntzaren jaitsiera handi bat gertatu zen); bestalde, eta horrekin erlazionatuta, Frantziar Iraultzak emaitza bezala lurjabe txiki eta ertainen talde handi bat utzi zuen, hots, populazioaren zati inportante batek nekazaritza arlor loturik jarraitu zuen, industrializazioa eta hiritartze prozesua mantsotuz (landak pisu handia izaten jarraitu zuen, hala ekonomian nola maila politikoan); bestalde, harrikatz urritasunak, barne-garraiorako zeuden zailtasun handiagoez, hezkuntza sistemaren garapen mantsok eta mende erdialdean sortu zen banka industrialaren porrotak ereduaren ezaugarriak azaltzen laguntzen digute (industriara epe luzeko inbertsioak bideratzen zituzten bankuak, Pereire anaienak bezala, Frantziako lehen industrializazioaren ezaugarri nabarmena izan ziren, haien porrotek, arrisku handiegiak hartu izanaren ondorio, krisi-une sakonak ekarri zituzten arren); alde horretatik Frantziako industrializazioa kapital finantzarioaren igoeraren (hots, kapitala industrial eta banka alorrekoa konbinatzen zituenaren) adibide goiztiarrenetako bat dugu. Ikatzaren eskasia, zalantzarik gabe, oztopo bat izan zen Frantzian ekonomia organiko batetik ekonomia “mineral” batera igarotzeko orduan, eta horrek azaltzen du, besteak beste, baliabide hidraulikoen ustiakuntzak bertan izan zuen garrantzia, batez ere turbina garatu ostean, antzinako gurgil hidraulikoa baino modu produktiboagoan aprobetxatzen zuena ur-indarra (Benoît Fourneyron frantsesak asmatu zuen 1830eko hamarraldian, eta nahiko bizkor zabaldu zen energia sortzaile bezala). Trenbidea aurki zabaldu bazen ere, XIX. mendearen erdialdean, Frantziaren hazkundera, aipatutako kausa guztien ondorioz, mantsagoa izan zen inguruko beste herrialde batzuen baino, eta Alemaniak bizkor gaitur zuen 1870etik aurrera, are gehiago Frantziak Prusiaren aurkako gerra galdu eta III. Errepublika sortu berriak Komunaren ahalegin iraultzailea odoletan ito zuenetik (testuinguru horretan, bestalde, industrializatorako nahiko garrantzitsuak ziren eskualdeen galera gauzatu zen, Alsazia eta Lorenarena alegia, Alemaniaren parte bihurtu zirenak). Dena dela, elektrizitatearen erabilpenak bermatu zuen ikatzarekiko mendekotasun txikiagoak, beste faktore batzuen artean, hazkunde ekonomikoa biziago bat ziurtatu zuen 1890eko hamarralditik aurrera batez ere, eta Frantzia, I. Mundu Gerraren bezperan, biztanleko errenta altuko herrialde bat zen, eta nazio industrializatu nagusien artean kokatzen zen inolako zalantzarik gabe, garrantzi ez gutxikoa gainera puntako arlo batzuetan (nikelaren edo aluminioaren metalgintza, autogintza, abiazioa...).

Suitza izan zen garai honetan industrializazio prozesu sendo bat abiatu zuen beste herrialde bat, nahiz eta bere oinarriek ez ziruditen, berez, egokienak: kontinentearen barnealdean kokatutako lurralde menditsu bat, lehengaien hornikuntza ez bereziki oparo batekin. Hala eta guztiz ere, bere abantaila probetxu atera ahal izan zizkien, batez ere bere populazio langilearen kualifikazio handiari, bere baliabide hidrauliko ugariari eta azpisektore batzuetan bultzatu zen espezializazio sakonari esker (hala nola erlojugintzan eta ehungintzako produktu berezi batzuetan, adibidez brodatuetan). Indar hidraulikoz sortutako elektrizitatearen zabalkuntzak, mendearen amaiera aldetik eta Bigarren Industri Iraultzaren aldaketen testuinguruan, abantaila handiak eman zizkion industrializazio

suitzarrari, garapen eredu finkatuz eta zabalduz; horri, zalantzarik ez, bere neutraltasun politiko-militarrarekin lotutako finantza alorreko espezializazioaren garapena lotu behar zaio, herrialdearen hazkunde ekonomikoa azaltzeko orduan.

Horiek ziren, gehiago edo gutxiago, 1870 inguruan industrializatutzat jo daitezkeen herrialde bakarrak Britainia Handitik kanpo; horiei Alemania eta Ipar Amerikako Estatu Batuak gehitu dakieke, agian, baina horien kasuak pixka bat ezberdinak izan ziren, eta hurrengo ataletan aztertuko ditugu. Europako gainontzeko nazioetan, 1870erako industrializazio zantzuak suma daitezkeen arren, ez ziren industri iraultzak benetan abiatzen hasi mendearen azkeneko laurdenera arte. Eta, zer esanik ez, Europatik kanpo apenas zabaldu zen egitura-aldaketa hura...

### 3.6.1. Estatuaren bultzadapean: Alemania eta Errusia

Dena dela, lehen aipatu bezala, herrialde liderrekiko (eta, batez ere, herrialde *liderrarekiko*) aldea murrizteko orduan estatu-aparatuen protagonismoa gero eta handiagoa bihurtu zen, industrializazio prozesuak sendotzeko eta bideratzeko orduan. XIX. mendeko Europan bi herrialde nabarmendu ziren bide horretan, Alemania eta Errusia hain zuzen ere.

XIX. mendearen erdialdean Alemania oraindik herrialde pobrea eta atzeratua zen, nekazaritzan oinarrituta eta politikoki zatitua 39 estatuetan; izan ere, garai horretan bi oztopo nagusi zeuden hazkunde industrialerako: alde batetik, nekazarien egoera, feudala kasu askotan, eta eredu kapitalistara egokitzen joan zena XIX. mendearen lehenengo herenean zehar (ekialdeko morrontzaren abolizioa eta desagertzea, mendearen hasieran, *junker* edo lurjabe handien interesak zauritu gabe burutu zen), eta, bestetik, zatiketa politikoa, ekonomia mailan *Zollverein* delako aduana-batasunarekin konpontzen hasi zena 1834tik aurrera. Halere baziren bigarren arloko jardueretan espezializatuta zeuden zenbait zona Rhin bailaran, Saxonian, Silesian eta Berlinen. XIX. mendearen erdialdetik, ordea, hazkundearen bizkortze bat gertatuko zen, zeinetan industriaren, bankaren eta garraio sarearen oinarriak jarri baitziren (trenaren ezarpena, estatuaren babesarekin, bereziki inportantea izan zen garai horretan), atzeritar kapitalaren eta teknologiaren eragin handiarekin. 1870eko hamarkadatik hazkundearen azelerazio izugarri bat eman zen, batik batik industria astunari dagokionez, eta ondorioz Alemania Britainia Handiaren parean jarri zen, nazioarteko merkatuetan geroz eta parte hartze nabarmenago batekin. Estatuaren esku-hartzea, Alemaniaren kasuan, industrializazioaren bultzadarik handienetakoa izan zen: lehenengo herrialde ezberdinetako gobernuena (hemen batik batik Prusiakoa izan zen aktiboa) eta gero Alemaniakoa (1871ko II. Reich-aren inguruko batasunaren ondoren); hori nahikoa normala bihurtuko da industrializazioa “atzerakuntzarekin” heldu ziren nazioetan. Estatuaren bultzadaz gain, industrializazioan lagungarri izan zitzaizkion natura baliabideen oparotasuna (batez ere ikatzari eta burdinari zegokienez); populazioaren hazkunde azkarra (1816an 22 milioi inguru baziren alemaniarrak, guztira, 1871n 41 milioi ziren, eta I. Mundu Gerraren bezperan 67 milioi); garraioen hobekuntza bizkorra Estatuaren eskutik (batez ere trenbidearena 1850etik); hezkuntza maila altuak, batez ere ikasketa teknikoan aldetik (hori ere Estatuaren bultzadaren lorpena); industriaren finantziarioarekin estuki lotu zen banka misto baten sorrera; eta, horrekin lotuta, enpresen arteko integrazioarako lege-erraztasunak, *kartel*-ak (hots, prezioen inguruko enpresen arteko itunak) eta *konzern*-ak (enpresa-konglomeratuak) sortzeko joerarekin. Estatu horrek, alde horretatik, ez zituen osoro hartu bere gain truke askearen printzipio liberalak, eta protekzionismoa defendatzen jarraitu zuen, batez ere XIX. mendearen amaiera aldean; izan ere, protekzionismoaren teoriko handienetakoa bat, Friedrich List (1789-1846), alemana zen.

Mendearen azkeneko heren-laurdenean Errusiak industrializazio prozesu bizkor bati ekin zion, ez zuena ordea bere ekonomiaren nekazaritza-oinarria eta atzerakuntza deuseztatu: oso herrialde desorekatua bihurtu zen, ekonomiaren ikuspuntutik. Edonola ere, Krimeako Gerrako derrotaren ostean (1854-56) estatuak modernizazio ahalegin handi bati



ekiteko erabakia hartu zuen, eta XX. mendearen hasierarako industri kontzentrazio oso inportanteak zituen Errusiak, San Petersburg eta Mosku inguruan batik bat, eta orobat Ukrainaren hegoaldean eta Uraletan. Estatuaren inbertsioa eta bultzada funtsezkoak izan ziren, batik bat 1890etik aurrera eman zen hazkunde industrialak ulertzeko. Bilakaera horretan, besteak beste, faktore positibo eta negatibo hauek hartu beharko lirateke kontuan: alde batetik, natura baliabideen oparotasuna, zeinen artean azpimarratu baitaitezke Silesia Garaiko harrikatza, Uraletako burdina edo Kaukaso aldeko petrolioak (trenbidearen eraikuntza, alde horretatik, estrategikoa suertatu zen oztopo ziren distantzia geografiko handien gainditzera). Bestalde, faktore negatibo bezala azpimarratu behar da nekazaritza-erreforma mantsoa eta nekazalgoaren gehiengoaren egoera ekonomiko kaskarra: 1861ko erreforma, jopuak (nekazari-morroiak) zama feudal pisuenetatik askatu bazituen ere, ez zen osoa eta guztiorokoa izan (nekazaria *mir* delako landa-erkidegoari lotuta mantentzen jarraitzen zuen), eta nekazari-populazioa ez zen askatu azkeneko lotura horiez 1906ko Stolypinen erreformara arte; horrek, esan gabe doa, produktibitate nahiko eskaseko lehenengo sektore bat eman zuen emaitza gisa, eta eros ahalmen gutxiko nekazalgo bat, populazioaren gehiengoa osatzen jarraitu zuena (alde horretatik, ez da harrizkoa estatuak bere gain hartzea industria pizteko eta bultzatzeko ardura). Bestetik, ekarpen inportantea egin zuten atzerriko kapitalen inbertsioari eman zitzaizkion erraztasunek, batez ere 1880ko hamarkadaren bukaeratik (horrek, bestalde, Errusiaren mendekotasuna handitu zuen Europa mendebaldeko finantza-munduekiko, eta, zer esanik, ez, estatuiekiko). Faktore horien konbinaketaren emaitza, Tsar-en Estatuaren autokrazia eta demokrazia faltaren jarraipenarekin batera, kontraesanek beteriko industrializazio nahiko prozesu azkarra izan zen, maila absolutuan alegia (Errusia bosgarren edo seigarren potentzia industrialak bihurtu zen ekonomiaren tamaina osoaren arabera), baina horrek ez zuen apenas aldatu nekazalgo pobretuaren egoera eta estatuaren despotismoa; izan ere, maila erlatiboan (*per capita* alegia) herrialde pobre eta atzeratua zen Errusia. Eta faktore horiek guztiak, I. Mundu Gerrak sortuko dituen kontraesanekin batera, Errusiako Iraultzaren iturburuan egongo dira.

### 3.6.2. Europako periferia.

Europako beste herrialde batzuk, ordea, nahiz eta ahaleginak egin, industrializazioaren “trenera” berandu igo ziren, eta atzeratuta geratu zirela kontsidera dezakegu: horiek dira ekonomialarien jergan *late comer* izendatzen direnak (“berandu iritsitakoak”). Portugal, Espainia eta Italiaren kasuak, ezaugarri ezberdintzaileak badituzte ere, funtsean antzekoak dira, eta industrializazioaren “aldaera mediterranean” bat osatzera heltzen direla defendatzen dute J.L. García Delgado bezalako ekonomiaren historialariek. Eskualde horretan arazoak edota oztopoak, batez ere, bi aldetatik etorri ziren (zenbait lehengaien eskasiaz aparte, adibidez, ikatzarena, eta Espainiak eta Italiak konpartitzen zituzten barne-garraio arazoak, merkatu nazional bat bizkor osatzeko arazoa izan zirenak): alde batetik, XIX. mendea nekazari-estruktura oso atzeratu batzuekin hasi zutela (batez ere lur-jabego handiari mesede egin zioten erreformak zirela medio), eta horren ondorioz barne-merkatu nahikoa estuak zituzten, industri produktuentzako eskari txikikoak alegia; bestetik, demografikoki, hazkunde natural txikia eta emigrazioarako joera izan zuten. Gainera, administrazio-egitura oso ahulak zeuzkaten, fisko sistema desegokiekkin, zor publiko handiarekin eta, hortaz, gastu oso handiak egiteko gaitasun ezarekin, eta horrek estatuak bultzatutako industrializazio prozesuak aurrera eramateko ezgai bihurtu zituen (Italian, gainera, arazo gehigarri bat zegoen, herrialdea ez zela politikoki batu guztiz 1870 arte alegia). Izan ere, zalantzarik da benetan *late comer* batzuk izan ziren, industrializazioaren lehenengo urratsak nahiko goiz eman baitzituzten, baina huts egin zuten haiek errotzeko orduan eta egitura aldaketa sakonak bultzatzeko orduan; izan ere, herrialde horietako industrializazioaren ezaugarrietako bat, ahuleziaz gain, eskualde mailako polarizazioa izan zen, hots, eskualde batzuek industria moderno gehienak eskuratu zituztela (Espainian,

Kataluniak eta Hego Euskal Herriko kostaldeak; Italian, iparraldeak eta batik bat Piemontek), nazioaren gehiengoak nekazaritza nahiko atzeratu batean oinarritzen jarraitzen zuten bitartean. Herrialde horiek, eta batez ere Italiak, Amerikarako emigrazio uholde nahiko handiak eragin zituzten, batez ere XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran.

Austrohungariar Inperioaren kasua ere oso hazkunde orokor mantsokoa izan zen. Hemen ere ezberdintasunak nabarmenak dira, batez ere mendebaldeko lurren (Austria bera, Bohemia, Moravia) eta ekialdekoen artean (Hungaria, Galitzia, Balkanetako herrialdeak...): lehenengoetan zenbait industri errotu baziren ere, bigarrenek oinarrian nekazaritza-produktuen ekoizle izaten jarraitu zuten. Faktore negatiboen artean aipa daitezke: egitura feudalen desagerpen berantiarra, batez ere nekazaritza-arloari dagokionez; kokapen geopolitiko kaskarra, barne-komunikabideetarako erraztasun faltarekin; lehengai arloko eza nabarmenak (batik bat ikatzari zegokionez); ez-egonkortasun politikoa eta Austriak 1860 eta 1870eko hamarraldietan galdutako gerrak.

Eskandinaviako herrialdeak (Danimarka, Norvegia, Suedia; neurri txikiagoan Finlandia, zeina, berez, ez da herrialde eskandinaviarra, eremu geografiko bertsuan kokatuta dagoen arren), ordea, *late comer*-en artean kokatu beharko genituzke argiki. XIX. mendearen bukaera aldera arte nekazaritza-abeltzaintzan, basoaren ustiapenean eta arrantzan oinarritutako herrialde atzeratuak izan ziren, baina mendearen azkeneko hamarkadetatik, batik bat 1880kotik, industri garapen nahiko finko bati lotu zitzaizkion. Zein izan zen aldaketa handi horren iturburua? Laburtuz, batez ere nazioarteko merkatuak uzten zien eskualde-espezializazioa egokitzen asmatu zutela, zituzten abantailei probetxua ateraz: natura-baliabideen oparotasuna (ur-indarra –bereziki egokia asko garatuko zen energia elektrikoaren sektorean–, egurra –esportaziorako, altzarietarako, paper-orerako... –, burdina...); kokapen geografiko ona itsasbideetan (gehien industrializatzen ari ziren eskualdeen artean hain zuzen ere); XIX. mende erlatiboki baketsua; hezkuntza sistema oso egokiak, giza kapitalaren prestakuntzarako epe-luzeko ondorioak izan zuena; aurrerakuntza nabarmenak nekazaritza arloan (adibidez, daniar espezializazioa txerri-abeltzaintzan eta gurinaren fabrikazio eta esportazioan; arrantza eta arrain kontserbak Norvegiaren kasuan, etab.; hauxe izan zen, bestalde, nahiz eta herrialde eskandinaviarra ez izan, Holandaren kasua, zeinaren industrializazio prozesua, Belgikaren independentzia ondoren geldialdi batean sartu ondoren, mendearen amaieran biziagotu baitzen, nekazaritza produktu horien esportazioan eta Amsterdam eta Rotterdameko portuen jardura handian oinarrituta, bertatik sartzen baitziren Kontinentera beste kontinenteetatik iristen ziren gai asko eta asko). Atzerri merkatuek, horrela (batez ere Britainia Handia eta Alemaniakoak), izugarriko garrantzia izan zuten, lehen mailako produktu hauek guztiak hara esportatzen baitziren; bide honetatik kapitalak eskuratuko ziren eta industri garapen bat posible egingo zuten, batik bat siderurgian, elektrika industrian, zuraren industria modernoan edo papergintzan (alde horretatik, eredugarria izan zen Suedian gauzaturiko transformazioa, egurra esportatzetik, lehenengo une batean, papererako orean, ondoren, eta papera bera, gero, produzitzera eta esportatzera igaro baitzen, aipatu abantailen babespean).

### 3.6.3. *Europatik at: Estatu Batuak eta Japonia.*

Industrializazioa, edonola ere, ez zen soilik Europan zehar zabaldu: salbuespenak izan baziren ere, Europatik kanpoko bi herrialdek lortu zuten behintzat industrializazio-maila nabarmen batzuk I. Mundu Gerraren bezperarako eta, ondorioz, egungo herrialde aberats edo garatuen taldean egon ahal izateko hazia erein zuten. Ipar Amerikako Estatu Batuetakoa, ezbairik gabe, XIX. mendeko hazkunderik ikusgarriena izan zen. Bere populazioa inon baino gehiago hazi egin zen: XIX. mendean zehar geroz eta emigrante kopuru handiagoa heldu zen hara, baina hazkunde demografikoaren iturburu nagusia bertakoen hazkunde natural tasa altuak izan ziren (etorkinen “*fitness*” demografiko handia,

M. Livi-Bacci ikerlariak esango lukeen bezala), eta horrek barne-merkatu hazkor eta geroz eta erraldoiago bat ziurtatu zion, industria-ekoizpenaren kontsumitzaile aparta bihurtuko zena. Hazkunde ekonomikoa, 1865 arte behintzat, nekazaritza sektore oso oparo batean oinarritua egon zen, nahiz eta bigarren arloko hazkundeak ezaugarri bereziak izan jadanik: teknologi hobekuntzarako eta asmakuntzarako joera nabarmengarriak eta estandarizazio maila nahiko handia. 1861-65eko Guda Zibilaren ostetik hazkunde oso bizkorra izan zen, bereziki industrian; gatazka horretan erabaki zen hain zuzen, afroamerikarren esklabotzaren auzia ez ezik, zeinek gidatuko zuen herrialdearen ibilbide ekonomikoa: Iparralde industrial eta protekzionistak, eta ez esklabotzan eta esportaziorako nekazaritzan oinarritutako Hegoalde librekanbistak. 1880. edo 90.eko hamarkadetarako munduko lehenengo industri nazioa zen. Kontuan hartu beharreko aldeko faktoreen artean daude Antzinako Erregimeneko erakunde, tradizio eta ohituren oztopo eza; natura baliabideen oparotasun itzela (eskualdekako espezializazioa erraztu zuena); Britainia Handiarekiko harreman zuzena (kulturala, teknologikoa eta ekonomikoa); lan eskaintzaren urritasun erlatiboa, bai industri, bai nekazaritza arloan, teknologi berrikuntzak asmatzeko eta ezartzeko presio garrantzitsua izango zena: indigenei lapurtutako Mendebaldeko lur azalera zabalak egongo ziren faktore honen muinean, eta hiritar eta immigrante asko lur sailak erraz eskuratzeko moduan zirenez, horrek soldatapeko lan-eskuaren eskasia erlatiboa eragingo zuen, lana aurrezteko teknologia eta produkzio-metodoen asmakuntza bultzatu bide zuena. Merkatuaren zabalera handia, erraldoitasuna alegia, beste faktore bultzatzaile bat izan zen, aipatu dugun bezala (kontsumo-ohitura nahikoa uniformeak garatu zituen, gainera, europar eskaeraren atomizazio eta ezberdintze handiagorekin konparatuta); barne-merkatua erabakigarria izanda ere, bestalde, atzerri merkatuetara erlatiboki irekitako ekonomia izan zen estatubatuarra (teknologia eskuratzeko, nekazaritza-produktuak saltzeko eta esportatzeko...); azkenik, botere federal indartsu eta batu baten mantentzea denboran zehar, gainera politika nahikoa protekzionista garatu zuena, barne-industriaren babeserako batik bat.

Japonia, ordea, nolabaiteko salbuespena da beste leku askotan industrializazioa zaildu zuten ekonomia-mendekotasun prozesu inperialisten testuinguruan: XIX. mendeko Europaz kanpoko industrializazio eredu bakarra dugu (Europa kontzeptuaren barruan AEB bezalako “Europa Berriak” ere kontuan hartuta, noski). 1853tik, inguruko herri askori lehenagotik gertatutakoaren arabera, nazioarteko merkataritzara irekitzera behartu zitzaion; gertakizun horrek, Japonia mendekotasun egoera batean murgildu ordez, erreakzio nazionalista bat eragin zuen, aldaketa handiak eta modernizazioa bultzatuko dituen: *Meiji* iraultza edo “berrezarpena” (1868). Alde batetik, kontuan hartu behar dugu, ordura arte garapen feudal nabarmena izandako ekonomia bat zuela Japoniak, eta, inportanteena, isolatuta egon zela merkataritza europarraren eraginetik XVII. mendetik (urtero itsasontzi holandar bakar bati permititzen zitzaion Japonekin oso merkataritza-elkartruke mugatua edukitzea). Bestalde, Meiji iraultzak Estatu indartsu eta monolitiko bat sortu zuen, europarrekiko atzerakuntza ekonomikoa gainditzeko kontzientzia oso garbiarekin, eta, izan ere, Estatuaren esku hartzea erabakigarria izan zen industrializazio eredu horretan: muga feudalak desagerrarazi zituen legedia ezarri zuen, azpiegiturak modernizatzeko ahalegina (trenbidea batik bat) bere gain hartu zuen, hezkuntza tekniko bultzatzeko inbertsio nabarmenak gauzatu zituen, inbertsio zuzenak bideratu zituen sektore estrategikoetara (batez ere industria astunera eta militarra), nekazaritzaren gainean zerga nahiko gogorrak ezarri zituen industrializazioa finantzatzeko kapitalak eskuratzeko helburuarekin, eta enpresen elkartzea eta kolaborazioa sustatzeko neurriak hartu zituen (adibidez, *zaibatsu* delako enpresa-konglomeratu monopolistikoak sortzeko baimenak), etab. Bestalde, azpimarratu behar da historialari batzuek pentsatzen dutela pentsamolde mailan bazeudela oinarriak kapitalismo industrial Japonian zabaltzeko, eta, zehazki, konfuzionismoaren adar baten erlijio-nagusigoa, obedientziari eta diziplinari garrantzia berezia ematen diona, lagungarria izango zela pentsamolde mailan. Eraitza, I. Mundu Gerra amaitu ostean,

industria-sektore txiki baina ondo oinarritu bat izan zen, zeinaren ahulezia, dena dela, Japoniako irlen lehengai-hornidura eskasa baitzen, politika inperialista gogor bat bultzatzera eramane zuen arrazoietakoa bat alegia.

Gainontzeko Europaz kanpoko herrialde gehienak, ordea, eta batez ere inguru tropikal eta kolonialetan zeudenak, ez ziren XIX. mendean industrializatu, eta horrek azaltzen du zergatik handitu zen hainbeste horien eta herrialde europarren edo “neoeuroparren” arteko aberastasun diferentziak (garapenaren eta azpigarapenaren mundu antagonikoen sorrerara eramango zuen zerbait). Menderakuntza koloniala (zuzeneko edo zeharkakoa), bertako nekazaritzen produktibitate txikia, eta haien espezializazioa esportaziorako lehengaien eta nekazaritza gaien ekoizpenean (zeinen prezioak oso azkar jaisten baitziren eskaintza mundu mailan igo ahala), kalterako izan ziren epe ertain eta luzera begira, industrializazio prozesuak bultzatzeko kapital metaketa propioak eragiteko gai izan ez ziren heinean. 1874tik aurrera herrialde horiek nagusiki esportatzen zituzten produktuen prezioak jaitsi ziren, herrialde industrializatuek esportatzen zituzten produktuei alderantziz gertatu zitzaizen bitartean: herrialde periferiko horiek ezin izan zituztenez ezarri, gehienetan, politika protekzionista eraginkorrak (horretara behartzen baitzieten metropoliek), haien elkartruke harreman errealak [*relación real de intercambio, terms of trade*], ondorioz, txarrera egin izan ohi zuen (elkartruke harreman errealak herrialde baten esportazioen eros ahalmena neurtzen du, inportazioekiko neurtua), eta ezin izan zuten modernizazio prozesu eraginkorrak bultzatu; metropoliek, ordea, balio erantsi handiagoko eta prezio-malgutasun txikiagoko gaiak esportatzeaz gain, beren industriak babestu ahal izan zituzten politika protekzionisten bitartez, maila anitzetan eta arrakasta ezberdinarekin, zirkunstantziak hala agindu zuten bakoitzean. Herrialde horietako ez gutxi, prozesu horien bitartez, herrialde industrializatuekiko finantza mendekotasun egoera batean gelditu ziren gainera, garapen ekonomikoa are zailagoa bihurtuz. Hirugarren Mundua edo “herrialde pobreak” sortzen ari ziren, eta aberastasunaren mundu mailako zanga handitzen (herrialde industrializatuetan, pixkanaka, murrizten hasten zen garai bertsuan), hurrengo gaian aztertuko dugun bezala.